

## GABIREL JAUREGIREN BIZITZA

### Sarrera

Zientzia gaiei buruzko idazle jakintsu honen bi urteurren, hain zuzen ere bere jaiotzeko lehen mendeurrena eta heriotzeko berrogeita hamargarren urtea (1895 - 1945 - 1995), batera ospatzeak interes nahiko handia sortu du euskara nahiz erlijio munduan. Interes honen iturburua, idazle hau, euskaraz eginiko lehen zientzia-liburu biak, *Fisia* eta *Kimia*, egin eta argitara eman zituena izatea dugu; badakigu, gainera, bazuela Naturzientziei buruzko bat egiteko asmoa ere. Oroitzapenak saritu izaten ditu edozein zientziantan bidegile izandakoen lanak.

### I. ARAMAION (Haurtzaroa: 1895-1909)

Bateo liburuan datuak jaso zituen apaizak jartzen duenaren arabera, geroago *Fisia* eta *Kimia* idatziko zituena 1895.eko maiatzaren 27ko goizeko zortzietan jaiotzen zen "Uribarren" baserrian, Aramaioko Etxaguenen, biharamonean, Luziano izena jarritz Leandro de Pujana, Etxaguengo parrokiako ardurardunak bateatu zuela<sup>1</sup>.

Beraren gurasoak Timoteo Jauregi, Ibarakoa (Aramaio) eta Sebastiana Uribarren Etxaguengoa izan ziren.

Aitaren aldeko aitajaun-amandreak: Roque Jauregi eta Dominika Etxebarria, Ibarakoa; amaren aldeko aitajaun-amandreak: Domingo Uribarren, Etxaguengoa eta Paula Abendibar Mailabikoa (Bizkaia).

---

<sup>1</sup> *Libro de partidas de bautizos de la parroquia de Sn. Miguel Arcángel de Echagüen del Valle de Aramayo, provincia de Alaba*, 18. orr.

Idazlan honetan erabilitako artxiboen laburdurak:

GPKA (Gasteizko Probintziko Karmeldarren Artxiboa).

LKA (Larreko Karmeldarren Artxiboa).


MKA (Markinako Karmeldarren Artxiboa).

### a. Auzoa eta jaiotetxea

Esan berri dugunez, Luziano Jauregi Uribarren Etxaguen auzoan jaio zen. Auzo hau Aramaioko gorenengo auzoa dugu. Anbotoko mendikateako muturreko haitzen barrenean aurkitzen da. Gaur egun pinu ugari ageri bada ere, lehenago solo eta landa garbiak, larre zabalak eta padadi eta gaztainadi ederrak zeuden inguruetan. Haitzari "Etxangatxa" deitzen diote eta bertan jaioten den ur gardenezko errekarari, "Etxango erreka". Lehenago bi urtegi zituen erroarako eginak auzo erdian "goikoerreka" deitzen dioten lekuan. Aintzina beherago egon zen errota, "errotondo" toponimoak aditzera ematen duen bezala. Otxandioko fabriketarako argi-indarra ateratzeko erabiltzen zen urtegi bat ere badago auzoko etxeak baino zertxobat beherago.

Bertatik iragaten zen Arabatik Bizkaira zihoan "Mandabideta" bide nagusia ere, bi adar zituela: Leziatik zehar atxostetik Anboto aldera zihoana eta Gantzatik zehar Tellamendira eta hemendik, Zabalaunditik Urkiolarantz, Amillatik Arrazolarantz eta Besaideitik Elorriorantz egiten zuela.

Luziano umea jaio zenean, auzo honetan hamaika familia bizi ziren, eta guztira chundik gora pertsona. Kontutan izan behar da, baserrietako familia gehienak berez oso



ugariak izateaz gainera, gehienetan gurasoen edo maiorazkoaren etxeko teilapean geratzen zirela bizitzen, kanpora ez zihoazen seme-alaba ezkondugabeak ere.

Bizibidea, baserri-baserrikoa zen, bada, jateko garia, artoa, indabak, patata eta ortuariak hartzen zituztela. Esnea eta okela ere etxean jasoten zuten, txarriak eta etxean haziz. Dirua eskuratzeko bide bakarra, harategi eta dendariei nahiz esnedunari, behiak, txahalak, bildotsak, ahumeak edo arrautzak eta esnea saltzea edo eta kalcan bizi zirenei surtarako egurra nahiz sutegi eta errementeriei ikatza eramatea izaten zen. Jertseak eta galtzerdiak egiteko, artilea erabiltzen zen gehien bat. Badakigu baserri batzutan izarak egiteko eta, linoa ere landatzen zutela eta aulkiak eta sehaskak egiteko *mimena* batzen. Baserri gehienetan beti izaten zen eskulanetan trebatutako norbait. Negute luzeetan, gainera, astirik ugari izaten zen halakoetarako.

Auzo horretan aurkitzen zen Luzianoren jaiotetxea, Uribarren baserria. Beraren gurasoak bizitzera hara joan zirenean etxebizitza bakarrekoa zen. Hala ere, hiru etxebizitzakoa izandako baserria dugu. Hori ematen zuten aditzera bertako hiru tximiniek eta bananduta aurkitzen ziren barruko sukalde, logela, kamara, korta eta sabaiek.

Aitajaunak semearen eta alabaren artean baserria banandu ostean, Luzianoren gurasoak zubitxo baten bidez eliza aurrera emoten duen goiko aldean bizi izan ziren. Alderik trinkoena eta zaharrena zen. Gaztelu antzera eginikoa. Sukalde eta ezkaratzeaz gainera,



*Gabirelen gurasoak.*

lau logela eta jantokia zituen goian. Gainean, ganbara eta azpian eta alboan korta eta sabaia. Baserri honi buruz honako hau diosku Jesus Mari Elejalde Jnak (Ayer y hoy del Valle de Aramaiona, 82. orr.).

“Egina izan zenetik etxearen izeneko deitura izan dute bertako seme-alabek. Baserriaren izenak berak, besterik beste, gure ustetan, “uriko” beherenengo baserria esan nahi du. Badira, bai, auzoko bi baserri beherago, baina uri-gunetik urruti. Uriko beherengo lekuan dago, bada.

Sarri ageri da aipatuta, Aramaioko historiako ibilaldian zehar. Bertako seme-alabak hainbat baserritara zabaldu ziren eta deitura hori beti ageri izan da ezer garrantzitsurik egin behar zuten aramaiotarren artean. Bertakoek, postu guztietan, alkate, prokuradore, apaiz, erregidore... postuetan ageri dira. Eta, zer bitxirik ere bada, beti ageri dela “Domingo” Uribarren izena duen norbait posturen batetan.

Baserria handiguraz edo bitxikeriaz eginda dago, inguruetan gutxi erabiliak diren ate eta leihoak dituela. Elkarri lotutako bi baserri dira, inoizka, hiru aldetan guztiz banatuta, hiru familia bizi izan badira ere. Gaur egun ez da inor bizi bertan. Azken aldietan hainbat gauzatarako erabili izan da, bai biltoki, sabai eta korta zereginetarako bai eta taldeen bilgune eta elkarbitza leku izateko, gehienetan euskara ikasteko eta sakontzeko.”

Egia esan, euskalzale porrokatua izan zen Aita Gabirelen jaiotetxea, hamabost urtean zehar euskarako udako ikastaro trinkoak emateko erabili izan zen, gaur egun ikastola, eskola, institutu eta euskaltegietan, eta, baita, unibertsitatean ere euskaraz irakasten ari diren 400 irakasle inguru, euskara sakontzen edo eta Euskaltzaindiko titulua lortzeko ikastaro bereziak egiten bertan ibiliak ditugula.

## **b. Jauregi-Uribarren familia**

Aita Gabirelen familia handia izan zen. Sebastianana eta Timoteo senar-emazteek 12 seme-alaba izan zituen:

Ezkondu ostean hamar urte Goikorrota baserrian bizi izan ziren, Timoteoren anaia-aren etxean; eta bertan jaio ziren Migel, anaia nagusia (apaiz egin zena), Manuela Celestina (umetan hil zena) Gregoria (monja izan zena), Justo, geroago Arexolako gurasoen etxera ezkonduko zena (honen emaztea, Juana Loiti, bizi da oraindik) eta Bizente.

Gero, Goikorroetan, anaia-aren etxean leku gutxi eta bizibide eskasa zutela eta, Domingo Uribarren Etxaguengo aitajaunak bere Uribarren etxea bi bizitzatan banandu eta alaba bertara eraman zuen bizitzera, horretarako behar zituen solo, landa eta basoak emanez; eta bertan jaio ziren Luziano (Aita Gabirel), Jose (Aita Angelo), Felipe, Jesus, Norberto, Maria eta Ana (oraindik bizi dena; berau izan da familiako berri asko eman dizkiguna; eskerrik beroenak sor dizkiogu). Etxaguenen hogeitau urte inguru bizi izan ziren. Gero, Arexolako Jauregi etxera aldatu ziren bizitzera.



Lanetik etorrira, Gabirelek ateratako argazkia gurasoak, bi arreba, prailca eta auzokoak.

### c. familia oso erlijiozalea

Aita Gabirel jaio zenean, Aramaiok bi mila baino zertxobait gehiago biztanle zituen, parrokiak eta eliztarrak barru hartzen zituzten hainbat elizatetan bananduta. Bizimodua, etxe eta parrokia artean, erlijio kutsuz beterik egiten zen, herri-jai eta ermitak, familia-jai eta erromeriak, kofradia eta elizbirak tarteko zirela. Bertako eliza eta hilerri ugarietz gainera, aparteko aipamena merezi dute ermita edo baselizek, baserrien inguruetan izanik herritarren erlijiotasunaren agergarri izaten zirelako.

Besterik beste honako hauek gogoera ekarri ditzakegu: Muruko San Joan (desagertua), San Migel, Asensio (desagertua), San Adrian, Jarindoko San Juan (desagertua), Magdalena (desagertua), San Sebastian edo "Sastiña", Santa Ana, Santiago (berriztatua), Marixeka edo Mariaka, San Kristobal, Gantzako San Joan (desagertua), Arragako San Pedro, San Krispin edo San Tirso (desagertua), Bolunburuko San Pablo (desagertua), San Antolin (desagertua), Ibabeko Andra Mari, San Andres, Santa Luzia, Labeagako Asentzio (desagertua), San Bartolome, Aragioko Santi Kurutz, San Lorentzo (desagertua), Murugango Santi Kurutz ("ermita zaharra")...<sup>2</sup>

Sarritan erlijio-giro honen ondorioz argiena apaiz edo erlijioso izateko gogoia sortzea edo bokazioa izaten zen. Horrela gertatu zen Jauregi-Uribarren familian ere.

– Luziano Jauregi Uribarren umearen bateo liburuan, aitapunteko zereginetan, Etxango semea zen Leoncio Uribarren osaba apaiza agertzen da. Eliz liburuetan, sarri agertzen dira Uribarren sinatzen duten apaizak.

<sup>2</sup> Ik. Jesus M<sup>a</sup> ELEJALDE PLAZAOLA, *Ermitas y caminos del valle de Aramaioana*, Gasteiz, 1986, 95 orr.; Idem, *Ayer y hoy del valle de Aramaioana*, Gasteiz, 1989, 469 orr.

– Anaia nagusiak, Migelek, apaiz egin eta Arabako Aguram inguruan jardun zuen. Handik Irunera bidali zuten eta bertan etxe bat hartu zuen. Ana, bere arreba eta Aramaio-ko neska bat izan zituen laguntzen, bide batez eskola apur bat ikasteko asmoz. Han zegoela izurriteak jo eta larri gaixotu zen. Ana izan zuen laguntzaile gaixoaldian. Gero, ardura gutxiago izateko apopilo jarri zen. Gerratean Frantziara joan zen eta handik etortzean Donostiako San Ignazio parrokiari jardun zuen gurasoen baserrira erretiratu zen arte. Gerratean larridura sartu ei zitzaion eta pixka bat burua galdu. Aramaiora itzuli eta Arexolan hil zen 66 urte zituela 1951eko irailaren 8an.

– Gregoria, arreba, dotedun monja izan zen, Urkila mendikateen hegoaldeko malde-tan, Barrian kokatuta zegoen monastegian. Berau, XII-XIII. mendeen artean eraikia izan-ik, historia eta tradizio handikoa zen.

– Luziano (Aita Gabirel), karmeldar egin zen.

– Jose (Aita Angelo) ere karmeldar egin zen.

– Norberto eta Jesus, aurrekoen anaia gazteagoak ere Larreako ikastetxean izan ziren ikasten, gero nobiziatura joan ez baziren ere.

– Etxekoandrea, hau da, hamabi semealaben ama, Sebastianana, alargun geratu zenean, aldikadaka Arexolan (bere etxean) aldikadaka Ibarran (Ana labaren etxean) egoten ei zen. Halako baten inori ezer esan barik paperak egin, eta monja egin zen Gregoria, alaba zegoen etxean, Barrian, eta bertatik idatzi ei zien erabakiaren berri emanez seme-alabei. Guztiek zurt eginda geratu ei ziren. Baina aspalditik hartuta ei zeukan hara joateko eraba-ki sendoa. Bertan hil zen.

– Bere adineko hiru lehengusu izan zituen apaiz: Esteban Campos Uribarren, Aramaioko medikuaren semea eta Roman eta Esteban Jauregi Urizar, gurasoak ezkonberritan bizi izan ziren Goikorrota baserriko semeak.

Argi nabari denez, erlijio-zaletasun handiko familia-giroan hezi zen Aita Gabirel txikitatik, giro horrek praile egiteko aukeran eragin zuzena izan zuela. Ikusiko dugunez, mutiko koxkor egina, hamalau urte zituela joan zen Larreako ikastetxera.

#### **d. Umetako giroa**

Luziano umearen lehen urteak Etxaguen auzoan izan ziren. Baserri giroan. Esan den bezala Aramaioko herriburu den Ibarratik hiru kilometro t'erdia, haitzaren magalean dagoen gorenengo auzoan. Bertan egindako umetako urteek oso eragin handia egin zioten. Arexolako gurasoen etxera etortzen zen guztietan saiatzan zen Etxaguenera joan-eto-rriren bat egiten. Bertan zituen, gainera, hainbeste maite izan zituen Nikasio osaba eta Mari izeko eta bere sasoi berekoak ziren lehengusu-lehengusinak.

Eliza ondoko plazak eta bideak parteko zirrara egiten zioten. Hainbat aldiz begira-tuko zuen, zer esanik ez, eliza ondoko Latetatik Aramaioko haranerantz aurrez aurre Untzila, Barajuen, Azkoagako elizdorreak zituela edo eta, urrutira, Aizkorri eta Aran-



Uribarren baserria.

tzazuko mendietaruntz. Behin baino sarriago ikusiko zuen, zerua urdin, eguzkia ñir-ñirka Txindoki aldean arpegia erakutsi nahiean. Ibarako etxeak ere behin baino sarriago ikusiko zituen, eguzkiak berotu ahala, itxaso zabala zirudien behelaino artean, itsasuntzien antzera laino zuri artean tximiniak, teilatuak, lehioak, pixkanaka-pixkanaka goruntz ateratzen.

Eguneroko bizimodua, baserriko bizimodua: lurak landu, animaliak (behiak, idiak, behorrak, ardiak, ahuntzak, astoak, oiloak) zaindu eta, garaia heltzean, arboletako fruituak, sagar, makatz, gaztainak batzea. Ondo ezagutuko zituen baserrietan erabiltzen ziren tresnak ere, esaterako, burdia, aitzurra, hotz bikoa, artarea, trilloa, laiak, aitzurrak, igi-taiak, goldak eta antzerakoak<sup>2a</sup>

Ordu luzeak iragango zituen aurrez-aurre, etxetik sei-zortzi metrora zeukan elizpean, beste inguruko umeekin jolasean, batez ere, igande eta jaiegunetan. Edo auzoko plazako gerizondo handiaren babespean jolasean egingo zuen, ohizkoa izaten zenez, “astostoka” edo “txutxurrutxuka”, “txiringolan” edo eta garizuman “txikolan”<sup>2b</sup>. Bertako apaizarekin ere harreman estuak eduki behar, nahi eta nahiez, ondo-ondoan bizi zen eta.

Aparteko zirrara egingo zion, nonbait, etxeko hormak miazkatuz beheruntz, neguan zaratatsu eta udan goxo-goxo marmarrean, eten barik jaisten zen errekatxoaren zurrumuru armoniotsuak; ardurak ere bai, batez ere negualdian, urek handitu eta hormetako zirrikituetatik kortaraino sartzen hasten zirenean.

Behin baino sarriago igongo zuen etxe aurreko arte handiaren adarretara, txorikume hotsei jarraituz habia bila edo eta behin baino sarriago etzango zen, udako beroaldietan,

<sup>2a</sup> Ik. Juan GARMENDIA LARRAÑAGA, *Apuntes etnográficos del valle de Aramayona (Aperos de labranza/lanabesak)*. Gasteiz, 1978, 251 orr.

<sup>2b</sup> Ik. *Atlas Etnográfico de Vasconia - Euskalerriko Atlas Etnografikoa - Atlas Ethnographique du Pays Basques*. *Juegos infantiles en Vasconia*. Ed. ETNIKER Euskalerrria. Bilbao, 1993, 793-833. orr.



bida ondoko belar gainean ematen zuen gerizpearen atsegina gozatzeko. Beraren ezkurak ere bilduko zituen seguruenik, neguan, etxera ekarritako ahumeei eskura jaten irakasteko.

Mendira joateko aparteko beharrik ez bazuen ere, ibilaldi bat edo beste egingo zuen Leziaraino behintzat, auzolanean bideak garbitzen eta konpontzen joandako aitari eguerdiko lapikotxoan eramatera edo eta igande arratsaldeko errosario ostean denbora pasatzera. Badakigu praille joan ziren anaia biak (Gabirel eta Angelok) ezagunak zituztela Anboto gailurrerako bideak ere.

Gantzaga auzoko mugetan zituen Munaldeko gaztainadiak eta solo-lan-dek ere gogorapen ederrak ekarriko zituzkioten, aldatsik igon behar izango bazuen ere; behin baino sarriago bustiko zituen oinak hango belardi urtsuetan edo eta belauetaraino sartu hankak bertako lur zingiratsuetan .

Baina ordurik gehienak etxe inguruko lurretan, hain zuzen, Uribarren neba-arrebek (Nikasiok eta Sebastianak) euren arloen artean mugatzat bide estu bat zutela zeukaten ortuan eta etxe azpiko soloetan egingo zituen.



Etxaguengo eliza.



Ez zitzaion auzo erdiko goikoerrekan ur freskua edateko edo eta jolas egiteko astirik ere faltako. Errotako "tangarrila" edo maratila hotsek ere behin baino sarriago entzungo zituen eta bertan, urun eta amaraun artean auzokoekin ordu luzeak, batez ere negualdian, berriketan eman ere bai. Behin baino sarriago igoko zuen errota ondoko piko-arbolara ere lehengusuekin batera.

Noiz behinka joan-etorriren bat, mezatarra, Gantzara, edo astegunetan kalera (Ibarra) eskolara. Garai hartan, Julian Balantzategi jaunari eginiko grabaketa batzutan ageri denez, maisu bakar bat ei zegoen Ibarrran. Bertan ikasiko zuen irakurtzen eta idazten, hamalau urte eginda Larreara batxilergoa egitera joateko nolabaiteko gutxienezko prestakuntza beharko zuen eta. Joan-etorri horiek aukera ederra emango zioten, zer esanik ez, Goikorrotan izeko-osabak eta lehengusu-lehengusinak agurtzeko. Behar bada, Untzilaraino joango zen aitajaunari alabaren etxean bizi izan zen artean, ikustaldiren bat egitera.

Baita ere, errogatibaren batetan Urkilaraino edo eta Santi Kurutzeraino, auzoko beste neskato-mutikoekin batera. Negualdian, elurra egin eta luzaroan aparteko lanik izaten ez zenean, etxeren bateko sabaiko belar artean jolasean gora-beheraka saltoka nahiz ezkutuka edo eta sutondo beroren batetan kartetan.

Aita patxadatsurengandik jaso zuen, dudarik gabe, egoera larriei aurre egiteko beti agertu zuen lasaitasuna eta ama biziagoarengandik bizitza osoan agertu izan zuen lanerako inkernua edo kemena. Esan dugun bezala, osaba bat mediku, beste bat abade eta anaia nagusia apaiz izateak izango zuen eraginik ikasketak egitera bultzatu eta, geroago, Karmengo Ordenako bidea hartzerakoan.

Ez dakigu zer dela eta aukeratu zuten beraren gurasoek ikasketak egiteko Larreako karmeldarren etxera bidaltzea, garai hartan, Bergaran, hurrago, halako ikasketak egiteko ikastetxe ospetsu bat zegoenez. Behar bada, han lekurik ez zegoelako edo Zornotzakoa merkeago ateratzen zitzaielako edo eta sermoiak egitera, geroago sarri egiten zuten legez, karmeldarren bat etorri eta hark gomendatuta edo. Karmeldarren artean agiri da Aramaion jaiotako prailerik, esaterako, Markinan nahiko ospetsua izan zen Aita Zezilio (Leandro Jauregi) Barajuengo semea. Edozein modutan ere, hara joan orduko mutiko kokkorra zen, hamalau urte egin-eginak zituen eta. Behar bada, bakarrik bialdu nahi ez eta itxaron egin behar izan zuen, Jose (Aita Angelo) anaiarekin batera joateko.

Ez dugu, beraren umetako aparteko berri zehatzik, aurreko lerro hauetan deskribaturiko bizimodua edo antzerakoa izango zuela uste badugu ere. Badakigu, hala ere, baserrian bizi izandako urte horiek eragin zuzena izan zutela berarengan. Hala ageri da, bere liburuetan erabiltzen dituen marrazkietan. Oso gogoko izan zuen baserri bizitzarekin zerkusia zuten zientzia-gaiak aztertzea eta azaltzea. Benetan, zaila egiten da hur-hurretik bizi gabe baserri bizitzako gaietara buruz halako berri zehatzak eman ahal izatea.

Hizkuntzari dagokionez ere, esan dezakegu, hamalau urte euskara hutsean bizi izan ostean oso ondo finkatuta zuela ikasketak egitera joan zen ordurako, gero orraztu eta apaintzen ahalegindu bazen ere. Joskeran argi eta garbi agertzen du ez duela hor-hemenka irakurriz ikasitako euskara, txiki-txikitandik, gurasoengandik jasotako esakunak eta erabiltzen ditu eta.

## II. BATXILERGOA ETA NOBIZIATUA (1909-1915)

### a. Larreako ikastetxea (1909-1915)

Luziano humanistikako ikasketak egitera 1909-1910. ikasturtearen hasieran heltzean, Larreako komentuko ikastetxe txikia egoera berezi eta apalean aurkitzen zen.

Aita Domingo de San Millan zenak, 1906.eko maiatzean bigarren aldiz Larreako komentuko nagusi izendatu zutenean, eliz bokazioak bultzatzeko ekimena hartu zuen eta, horrela, 1907.ean Larreako komentuan, bertako praileen ardurapean, latinitate-ikastetxea sortu. Jauregi anaiak ikasketak egitera bertara heldu zirenean, Larreako nagusi Aita Tiburcio de S. José (1909-1912) zen. Eta Aita Doroteok esaten duenez, bakarrik kanpoan bizi ziren ikasleak, nahiz apaiz sekular nahiz erlijioso izateko zirenak, onartzen ziren. Luziano eta Jose Jauregi Uribarren anaiak komentuaren hurreko etxe batean bizi izan ziren apopilo.

Hasiera baten, irakasgela lanetarako, bibliotekaren azpian, hau da, sakristiaren ondoan zegoen gela<sup>3</sup> erabiltzen zen, baina, gaur egun oraindik dirauen gelaz gainera, alboan zegoen beste bat ere erabili zen; azken hau bota egin zuten urte gutxi barru.

Geroago ezagutua izango zen zentru edo ikastetxea, hau da, komentu aurreko Jauregia, lehen aldiz 1916-1917. ikasturtean erabili zen; 1924.ean, etxe barruan bizi ziren 60 ikasle zituzten; baina ordurako joanak ziren Larreatik Gabirel eta Angelo anaiak.

Larreako dorretxea eta berarenak ziren lurak 1915.eko irailean erosi ziren, 75.000 pezeta kostatu zirela<sup>4</sup>.

Aita Gabirelek Larrean ikasten eginiko 1909-1913. urteetan nahiko ikasle gutxi zirenez, karmeldarren zuzen-zuzeneko ardurapean egon ziren. Urte batzuk geroago jarraitu



Santa Kruz (Gabirelek ateratako argazkia).

<sup>3</sup> *Monografía histórica del Santuario y Convento de los Carmelitas Descalzos de Larrea (Vizcaya)*, Bilbao, 1926, 40 orr.

<sup>4</sup> LKA, A-1-2: *Libro de apuntes históricos del convento de Larrea*, 56. orr.



Gabirel eta Angelo anaiak.

ziren programen arabera, Larreako lau urteetan honako gaiok irakasten ziren: Latina, Gaztelera, Erretorika, Literatura, Latinezko Idazketa, Gaztelerazko Idazketa, Grekoa, Euskara, Aritmetika eta Geometria, Kristaubidea, Erljioa, Morala, Gizabidea, Solfeoa, Gregoriar Kantua, Kaligrafia, Dibujoa eta Gimnasia.

#### b. Nobiziatua Larreako karmeldarren etxean (1913-1914)

Hamazortzi urte zituela, 1913.eko uztailaren 9an, agiri ofizial baten bidez Karmengo Ordenan sartzeko erregua egin zuen<sup>5</sup>. Horrela sartu zen Larreako Karmeldarren nobiziatuan, habitua 1913.eko abuztuaren 5ean jantzi zuela.

Kontutan hartuko behar da aurrerantzean, apaiz egin ziren arteko ikasketa urte guztiak batera egin zituztela berak eta urte t'erdia gazteago zen Jose anaiak, hau 1897.eko martxoaren 19an jaioa baitzen<sup>6</sup>. Hau ere pertsonaia nahiko ezaguna izan zen Ordena barruan, hainbat aginte-kargutan jardun zuelako; gaztelera eta portugesez ugari idatzi izateaz gainera, ia bizitza osoa Euskal Herritik kanpo egin arren, euskaraz ere saiatu zen.

<sup>5</sup> *Album del Colegio de los RR.PP. Carmelitas Descalzos. Larrea (Vizcaya). Año 1924*, (Zornotza, 1924), 29 orr.

<sup>6</sup> GPKA, C (Biografiak), 71. kutzan, akats nabaria duela agiriak 17 urte zituela esaten du.

Aita Lino Akesolok aitortzen zuen bezala, eragina izan zuen Larreako gazteengan, bertan euskal gramatika irakatsi eta euskara gogotsu ikastera bultzatu zituelako. *Karmengo Argia* aldizkarian ardaratu zituen lan labur batzuk. Liburu honetako beste atal batetan ageri denez, euskara sakontzeko ardura ere hartu zuen, euskal gramatika bat egiten eta lau euskalkietako euskal aditza aztertzen saiatuz.

Halan, bada, nobiziatuko urtea egin ostean karmeldar Ordenan bizitzeko onartuak izan ziren eta Luciano Jauregi (Gabirel del Corazón de María) eta Jose Jauregi (Angelo de la Sma. Trinidad) anaiek, beste bost gazte lagunkide zituztela, 1914.eko abuztaren 6an eskaini zizkien bizitzak Jainkoari Karmengo Ordena barruan botuak eginez.

### c. Batxilergoa Markinan amaitu (1914-1915)

Larrean 1914.eko abuztuaren 6an lehen botuak egin ostean, Gabirel eta Angelo anaiak Markinara joan ziren batxilergoko azken urtea egitera. Markinako Karmengo etxea, filosofiako (1871-1885, 1896-1898) eta teologiako ikastetxea (1874-1888, 1893-1894) izan ostean, botuak eginberri zirenen zein batxilergoko azken urteko ikasleen etxe bihurtu zen (1911-1915). Markinako Karmengo etxea azken 45 urteetan Euskal Herriko eta Penintsulako Karmeldarren komentu garrantzitsuena izatera heldu zen; egin-eginean ere, karmeldar euskaldun gutxi batzuk, itzelezko eragozpen sozio-politikoak gaudituz Espainia osoko karmeldarren Ordenaren Berrezarketari hasiera (1868) ematea lortu zutelako bertan, eta Amerika eta India eta beste hainbat lekutarako misiolarien jardun izugarriaren abiapuntu eta gune izan zelako.

Historia luzea zuen etxe hartara heldu zen, bada, Gabirel. Aurreko urteetan nobiziatua eta filosofia eta teologiako ikastetxe izanda gero, karmeldar gazteen heziketa-etxe bihurtutako etxe ospetsu hartara. Bertan amaituko zuen batxilergoa beste sei lagunekin batera.

Botuak eginberri zirenen taldea Markinara heldu zenean, Aita Jeronimo de la SS. Virgen (Garaigoitia Agirre, Zornotzan jaioa, 1846-1921) Ordenan kargu asko eduki zituen eta euskal sermoilari ospetsua zen bertako nagusi.

Gazte haien bizimodua ikasketa eta otoitzaldi artean, etxeko lanen eta jendeak (egin-eginean ere, gazte haiek zuten gaztetasunari esker, batez ere larunbatetan "Salve" abesten agertzen zuten bizitasuna eta alaitasuna zirela tarteko) hain begi onez ikusten zituzten liturgia ospakizunen artean iragan zen.

1915.eko ekainaren 29an izan zituzten Humanistikako azterketak, aztertzaile, Jose Andres de los Dolores, Aita Ezequiel de S.C. de Jesús ospetsua eta Beda de la Virgen del Carmen izan zituztela; zazpi ikasleak izan ziren ontzat emanak bai zientzietan bai eta gizabidean<sup>7</sup>.

<sup>7</sup> GPKA, "Examen studentium" [1872-1942].

#### d. 1915-1916. eko ikasturtea

Aita Gabirelen bizitzan, berri zehatzik aurkitzen ez dugun urte bakarra dugu, hain zuzen ere, 1915-1916.eko ikasturtea. Filosofiako lehen ikasturtea egin behar zuen, bere gainerako lagunekin batera, baina filosofiako lehen urte hori Burgosen egin zuten 1916-1917. urtean. Hori dela, bada, ez dakigu zer egin zuen gazte talde hark 1915-1916.eko ikasturtean.

Behar bada, batzutan Euskal Herriko karmeldarren probintzaiari gertatzen zen bezala, filosofiari joateko talde txikiegia izan eta urtebete itxaron zuten hurrengo urtekoekin batera joateko. Gehienetan, itxarote hori Larrean egiten zuten, baina Gabirelen kasuan, taldea Markinan zegoenez, bigarren urte hori ere bertan egingo zuen. Egin-eginean ere, Gabirelen taldeari Burgoseko filosofiako lehen urtean, Larrean 1915.eko uztailaren 7an botuak eginiko 8 lagunkideak eta botuak hilabete geroago, abuztuaren 10ean egindako beste hiruak elkartu zitzaizkion.

Era beran, badakigu 1916.eko apirilean ikasle talde bat zegoela Markinako Karmengo komentuan<sup>8</sup>. Beste talderen baten berririk inon ez denez ageri, nahitaez, Aita Gabirelen taldea izan behar. Baina, 1915-1916. ikasturtearen amaieran ez zen azterketarik izan, ez delako ikasturte hori komentuko aktetan ageri. Zer egin zuen, bada, urte horretan taldeak? Seguruenik batzilergoko gairen batzuk berrikusi eta filosofiako ikasturterako zer-bait gertatu.

Behar bada, geure buruei itandu ahal diogu nondik hartu zuen Aita Gabirelek Fisika, Kimika, Matematika eta Natur Zientzietarako zaletasuna. Eta ez litzateke burugabekeria izango urte "aske" hori bere zaletasunak lantzeko erabili zuela esatea... Egia da, bai, Gasteizeko filosofiako ikasturteetan (1917-1919) sakondu zituela ofizialki zientzia gai horiek... Hala ere, ezin daiteke baztertu, Gabirel, bere-bereak izango zituen kimika, fisika eta natur-zientzia ikasketak sakontzen Markinan bertan hasi izatea, Karmengo bibliotekan, berak, zaletasunak eraginda erabili ahal izan zituen zientzi horiei buruzko garai hartako liburu batzuk aurkitzen ditugunez<sup>9</sup>.

### III. ELIZ IKASKETAK (1916-1923)

#### a. Filosofia-ikasketak

– *Burgos (1916-1918)*

Nafarroako San Joakin, Karmeldarren Euskal Probintzia, geografikoki gaur eguneko bano zabalagoa zen, Burgos ere barru zuela. Horrela, gaitasun gehien zuten komen-

<sup>8</sup> MKA, A-V-15: Aita Jose Andres de los Dolores priorearen Egunerokoa edo Agenda, 1915-1917.

<sup>9</sup> Horrela, esaterako; Bartolomé FELIU Y PEREZ, *Curso elemental de física experimental y aplicada y nociones de química inorgánica...*, Barcelona, 1883, 5ª ed., 666 orr.; Jaime DOMENECH LLOMPART, *Nociones de Ciencias Físicas y Naturales*, Valencia, 1911, 160 orr.; Idem, *Nociones de Química*, Valencia, 1911, 200 orr.; Idem, *Nociones de historia natural*, Valencia, 1912, 248 orr.; A. GANOT, *Tratado elemental de física experimental y aplicada y de meteorología...*, 9ª ed., Madrid, 1884, VI-944 orr.; Venancio GONZALES VALLEDOR - Juan CHAVARRI, *Programa de un curso elemental de física y nociones de química*, 2ª ed., Madrid, 1851, 463 orr., etab.



tuetan zehar zeuden sakanbanatuta karmeldar gazteek egin behar zituzten ikasturteak. Eta, data haietan, Burgosko komentu-ikastetxean egiten zen filosofiako lehen ikasturtea.

Azterketa aktei esker<sup>10</sup>, talde ederra zegoela dakigu 1917.eko uztailaren 2 eta 3.ean 16 ikaslek egin zituztelako ikasturteko azken azterketak. Aztertaileak Aita Victor de la Cruz, Probintzialaren ordezkaria, Aita Leandro, komentuko priorea, Aita Claudio de Jesus Crucificado filosofiako irakaslea, Aita Casimiro de la Virgen del Carmen ingeleseko irakaslea eta Aita Salvador M<sup>a</sup> de S. José Kosmografiako irakaslea izan ziren. Lauk izan ezik guztiek gainditu zuten ikasturtea.

Gabirel zerrendaburuan agertzen da, taldeko zaharrena zelako; horrela agertuko da aurrerantzean gainerako urteetako azterketa-zerrenda guztietan.

Hurrengo urtean bi filosofia maila egon ziren; lehenean 10 ikasle zeuden eta Gabirel-enean 13; horrela ageri da 1918.eko ekainaren 27ko azterketetan. Itxura denez hiru ikaslek urtea errepikatu behar izan zuten, taldea 16tik 13ra gutxitu zen eta. Oraingo honetan guztiek gainditu zuten ikasturtea.

#### – Gasteiz (1918-1919)

Baina, orduan nahiz geroago, Gasteizeko karmeldarren etxea izan da, tradizioz, karmeldar gazteen filosofiakasketen ikastetxe nagusia. 1918.eko urtean filosofiako hiru ikasmailak eman ziren. Horrela 1919.eko uztailaren 1-3. egunen artean 34 ikasle filosofok egin zituzten azterketak: 11k lehen mailan, 10ek bigarreanean eta 13k hirugarreanean, hauen artean ageri dela Gabirel.

Urte honetan izan zituzten gaiak eta irakasleak honako hauek izan ziren: Aita Marcelo del Niño Jesus, filosofiako bigarren eta hirugarren mailako irakaslea; Aita Eliseo de San José, fisika eta matematikako irakaslea eta Aita Clemente de San Jose filosofiako lehen mailako eta natur zientzietako irakaslea.

Irakasle aztertzaileen sinaduren artean, probintzialarena, hain ospetsua izan zen Aita Ezequiel del S. Corazón de Jesus, Zornotzako semearena ere ageri da.

Ikastaro hauek, batez ere, fisika, kimika eta natur zientzietara zegozkienak eta Aita Eliseo de S. Jose irakasleak zerikusi handia izango zuten, seguruenik, Gabirel karmeldar gaztearen geroan, beraren zientzia-bizitza gai horien inguruan, hain zuzen ere, lanak euskaraz argitaratzeraino burutu zuelako.

#### **b. Teologia-ikasketak**

##### – Begoñan (1919-1922)

1880.ean Begoñako Karmelo eraiki zenetik oraintxu arte, teologia Ordenako ikastetxeetan ikasi izan den urteetan, Begoñako Karmeloko komentua izan da teologiako ikas-

<sup>10</sup> GPKA, *Examen studentium*.



ketak egiteko gazteak gehienetan eta luzaroen izan dituen komentua. Historia luze honen lekuko dugu bertako biblioteka, karmeldarren euskal probintziako handiena eta garrantzitsuena delarik.

Bertara etorri zen Gabirelen taldea teologia ikasketei hasiera ematera 1919.eko udazkenean. Teologiako hiru urteetan irakasle oso ospetsuak izango ditu, besterik beste, bera baino hiru urte bakarrik zaharragoa zen Aita Hipolito de la Sadrada Familia, Zea-nuriko semea, euskalari eta idazle euskalduna, Zuzenbide Kanonikoan gaitua; berau, Begoña eta Kalagurriko teologi-etxeetako eta Erromako nazioarteko ikastetxeko irakasle izan zen<sup>11</sup>.

Aita Hipolitorekin batera (Zuzenbide Kanonikoa, Patrologia eta Arkeologia irakasten zituen) honako irakasleok ageri zaizkigu: Aita Rainaldo M<sup>a</sup> de S. Justo, Aita Claudio de Jesús Crucificado (Teologia dokmatikoa irakasten zuena), eta Aita Jenaro de S. Jose (Teologia dokmatikoa eta Morala irakasten zituena). Hauek ageri dira Gabirelen ikasturteko 13 ikasleen azterketa-aktetan.

Begoñan egin zuen teologiako 3. ikasturtean, azterketa-akten arabera, 31 ikasle zeuden (13 lehen mailan, 7 bigarrean eta 13 hirugarrenean; azken hau zen Gabrienen taldea).

#### – Kalagurrin (1922-1923)

Gabirel Kalagurrira joan zen teologiako azken urtea (1922-1923) egitera. Baina ikasturearen hasieran sagaratu zuten apaiz, Iruñean, 1922.eko irailaren 17an. 1923.eko ekainaren 27an azken azterketetan izan zituen irakasle eta aztertzaileak, Aita Redento del Niño Jesus, Teologiako irakaslea eta Aita Hipolito de la S. Familia Zuzenbide Kanonikoren irakaslea izan ziren.

#### IV. ZIENTZIA ETA KULTURA ALORREKO JARDUNAK (1923-1936)

Eliz ikasketak amaitzerakoan Ordenako nagusiek erantzukizun desberdinak eman zizkioten, halakoen artean agerikoena eta nagusia irakasle lana izan zela.

<sup>11</sup> 1924.ean Aita Ezequiel de la Sagrada Familia Probintzialak Erromara bidali zuen Zuzenbide Kanonikoko ikasketak osotzera. "Angelicum" ikastetxeko ikastaroetara joan zen eta 2. urtean dotoradutza lortu zuen, Ordena barruan halako titulua lortzen zuen lehena izan zelarik, aurrerako debekatuta baitzegoen titulurik eskuratzea. Era berean bi urtetan zehar Rota Romana-ko ikastaroetara joan zen. Eta irakalse kargua izan zuen Erromako Karmeldar Teresiarren nazioarteko ikastetxe nagusian. 1928.ean Eliza Ekialdetarrerako Kongregazio Santuko Aholkulari izendatu zuten. Eliza Ekialdetarreko Zuzenbide Kanonikoren berrizaketa eta kodifikazioa egitea pentsatu zenean kanositek osoturiko batzorde pontifikal bat eratu zen eta beraiei aholkularitza emateko lau legegizon aholkulari izendatu zituzten, beraien artean Aita Hipolito aurkitzen zelarik. Bost urtetan zehar etengabeko lana izan zuten; erta berean, Karmeldarren nazioarteko ikastetxeko irakasle izaten jarraitu zuten. Bere euskerako lan bat aipatu behar: *Erroma'ko Eleizearen Araudia (Euskaraz)*, Tolosa, 1978, 471 orr.

### a. Aldi laburreko lana bi aldizkaritan.

– “*El Monte Carmelo*” (Burgos: 1923.eko udatik 1924.eko otsailerarte).

Aita Gabirelek, karrera amaitu eta berehala, 1923.eko udan, Burgosera bidali zutela *El Monte Carmelo* aldizkarian lan egitera gogoratzen digu. Aldizkari hau 1900.eko urtarrian sortua zen; eta gogora ekarri behar da garai hartan bertako priore Aita Juan Vicente de Jesus María (Zengotita-Bengoa) Berrizko semea zela, egin-eginean ere, beatifikazio-prozesua oso aurreratuta duen karmeldar misiolari ospetsua (datorren maiatzean eztabaidatuko da Erroman bere birtuteen heroitasuna).

Ez dakigu, hala ere, zein izan zen Aita Gabirelek aldizkari horretan egin behar izan zuen lana; seguruenik administrazio lanetan jardungo zuen. Bestalde, hain gaztea izanik eta oso aldi laburrean aritu zenez, ez da harrizkoa urratsik ez uztea.

– “*La Obra Maxima*” (Iruñea: 1924.eko otsailetik abuzturarte).

Oso laster, 1924.eko otsailean, Iruñara joango zen “*La Obra Máxima*” aldizkariaren administrari lanetan jardutera; aldizkari hau urte batzuk lehenago, 1921.ean, aipatu dugun Aita Juan Bizente misiolari eta apostolu ospetsuak misioei laguntzeko sortua izan zen; Aita Gabirelek hilabete gutxi batzutan gizon ospetsu harekin bizitzeko aukera izan zuen. Misiolari agurgarriak Indiako misio-lurretan 17 urtetan zehar (1900-1917) lan egin ostean, Europan eta Amerikan misioenganako maitasuna zabaldu nahi izan zuen, horrela Europan ahalik eta jenderik gehienek misio-lanen ardura hartu eta otoitzez nahiz diruz laguntzen ahalegintzera bultzatzeko. Hara, bada, aldizkaria martzan jarri eta laugarren urtean, Aita Gabirel Berrizeko apostolu handiari laguntzera bidali zuten.

Aldizkari honetan ere epe oso laburrean jardun zuenez, ez zen beraren lorratzik geratu.


### b. Gasteizeko filosofia-ikastetxeko irakasle (1924-1936).

1924.eko abuztuan berak gogokoen zuen eta bere izaerari ondoen egokitzen zitzaion jarduna betetzen, hain zuzen ere, zientzia gaiak azaltzen eta euskarako jarduna betetzen jarri zuten.

29 urte zituen eta nagusiek Gasteizeko karmeldarren filosofiako ikastetxeko irakasle izendatu zuten, zeregin horretan jardun zuela 1936.eko gerra zibilak etena ekarri zion arte. Ordurako erakutsiak zituen bere hainbatetan zaletasuna eta gaitasuna, irakasle lanetan jarduteko zirenak aukeraketa zehatz bidez izandaten zituzten eta.

Aita Gabirel Gasteizeko komentu-ikastetxera heldu zenean 31 ikasle zeuden bertan hiru mailatan bananduta: 10 lehen mailan, 10 bigarrean eta 11 hirugarrean<sup>12</sup>.

<sup>12</sup> Datu guzti hauek eta jarraiko batzuk azterketen aktetatik hartuak izan dira: GPKA, *Examen studentium*.



A. Gabirel ikasleekin (Lino, Santi, Joan...)

Irakasle modura egin zituen lehen azterketetan Aita Juan Vicente de Jesus María, Probintzialaren Bikario zereginetan jardun zuenarekin eta beste 5 irakaslerekin batera ageri zaigu, beraien artean Aita Gabirelek 1918-1919. ikasturtean zientzietako irakasle izan zuen Aita Eliseo de San Jose aurkitzen dela.

Aita Gabirelek, bere ohar autobiografikoan, ikastetxe honetan Naturaren Historia, Matematikak, Filosofiaren Historia, Arkeologia, Fisika eta Kimika irakatsi zituela esaten digu.

Azterketetako aktetan ez da garbi ageri zeintzuk ziren Aita Gabirelek lehen urteetan irakasten zituen ikasgaiak. 1933-1935. epealdian hirugarren mailakoek Filosofia, Fisika, Kimika, Filosofiaren Historia eta, bigarrenekoek Filosofia, Matematikak eta Psikologia esperimentalak ikasten zituzten.

Benetan interesgarri egiten zaigu Aita Gabirelek ematen zituen notei begirada ematea. 1932. urterarte ez ziren notak zenbakitan ematen, "nahikoa" edo "ez-nahikoa" baka-rik jartzen zela. Horrela, 1931-1932. ikasturtean fisika gainditu ez zuen bat ageri da. 1934.ean ere, multzakako kalifikazioak eman ziren, baina, hurrengo urtean ikasgaien notak zenbaki eta guzti ageri dira. Eta bitxia gertatzen da ikasturte horretan Aita Gabirelek 9 ikasleei nota berdina, hau da, fisikan 8 eta kimikan 9 jarri ziela ikustea; bigarren urteko 19 ikasleen artean, ostera, matematikako notak 6tik 9ra artekoak dira.

Baina 1935 eta 1936.ean Aita Gabirelek ez ditu nota hain berdintsuak jartzen fisika eta kimikan; hala ere, ez du beste batzuk bezala zehatz-meatz jotzen, ez duela zenba-

kien hamarrenik erabiltzen; 6, 7, 8, 9 eta 10eko notak eman zituen. Ikusten denez, nota altuak emateko joera zuen.

Fisika, Kimika eta Natur Zientziei zien zaletasunak eta 1935. urtearen inguruan titulu ofizialak eduki beharrak eraginda Aita Gabirelek Oviedoko unibertsitatean lehen bi urteetako Natur Zientziako azterketak gainditu zituen<sup>13</sup>.

Irakasle izan zen urteetan fisika eta kimikako kabinetea antolatu zuen hainbat tresna eta zer baliotsu eskuratuz. Hainbat eta hainbat ordu egiten omen zituen horretan, inoiz jatorduak ahazteraino. Dirua nonbaitetik atera behar eta argazkiak egiten omen zituen eta bost pezeta kobratu<sup>14</sup>.

Gasteizen irakasle izan zen garai honetako

hainbat gertakari, liburu honetako beste idazlan batetan bilduko dira. Gasteizeko gizagune batzutan oso maitatua eta mirestua zela eta hirian adiskide handiak zituela esan beharra dago; adiskide horiek oso ondo etorri zitzaikion, esaterako, gerratean, beste euskal karmeldar batzuk gartzeleratuak izan zirenean aske jarraitu ahal izateko.

Era berean, adiskidetasunezko harreman estuak izan zituen Gasteizko Seminarioko irakasleekin ere, hauen artean aurkitzen zela On Migel Barandiaran; berarekin, besterik beste, arkologia-zaletasunak lotzen zuen. Honetan gogoan izan behar da sarritan joaten zirela Gasteizko karmeldarrak Seminariora bertako gazteen aitortzak jasotera. Pedro Pujana idazleak ere bertan ezagutu ei zuen ikasle gazte zela beragana aitortzera hurreratu zen batean; aurrean zuen prailea euskalduna ala erdalduna zen jakin ez, eta badaezpadan edo erda-



A. Gabirel Oviedoko Unibertsitatera joan zenekoa.

<sup>13</sup> GPKA, C, 71.kutxa.

<sup>14</sup> LKA, A-IX-1: *Memoria de los religiosos fallecidos en este convento de Larrea*, 27. zk.

raz hasi ei zen eta besteak bat-batean euskalduna zela igarri eta bestelakorik gabe nongoa zen itandu ei zion. Oletakoa zela erantzutean, —"Oletakue, Oletakue"— esan ei zion, bera ere Aramaiokoa zela aditzera eman barik.

Gasteizeko Karmengo elizan izaten ei zituen sermoiak edo hitzaldiak, baina, ez ei cukan, benetan, hitz egiteko erraztasun handirik.

Garai honetan, noizbehinka Aramaiora joaten zen, bereziki jaietan, Maringo gelto-kiraino trenez eta handik Aramaioraino, mendiz mendi, oinez. Inoiz fraile lagunekin ere etortzen ei zen, aitortu digu Ana bere arrebak. Gero, aitak ematen ei zion, berriro mendiz gora joan beharrean, Arrasatera jaitsi eta bertan trena hartuz Gasteizera itzulzeko dirua.

Gurasoak Arexolan bizi eta etxea han izan arren, beti izan zituen harreman estuak Etxanguengo jaiotetxearekin. Ahal izaten zuen guztietan joaten ei zen hain maite zituen Nikasio Uribarren osabari eta Maria Ozaeta izekori eta, bide batez, lehengusu-lehengusinei ikustaldiak egitera. Berak eman zion lehen jaunartzea Eugenia Uribarren Leturiaga, lehengusu zituen Esteban Uribarren eta haren emazte Karmen Leturiaga andrearen alabatxoari. Argazki batzuk atera ei zituen, baina, itxura denez, hondatu egin zitzaizkion paperera eramaterakoan.

Aita Gabirelen zaletasunetariko bat, aipatu berri dugun argazkigintza ei zen; Ana Jauregi Uribarren, bere arrebak hark ateratako hainbat argazki ditu; batean, Santi Kurutzeko basiliza ondoan hiru frailekide agiri dira. Lehenago aipatu dugunez, argazkiak atera eta salduz ateratzen zuen, hainbatetan, hain gogoko izan eta ardura handiz zaindu eta aberastu zuen Gasteizeko ikastetxeko zientzietako kabineterako gaiak erosteko dirua.

### c. Euskal idazlea (1931-1936)

Gasteizen Fisika, Kimika eta Natur Zientzien irakasle izateak gai horiek sakontzera eta irakasteko era egokiak bilatzera bultzatu zuen; horixe agertzen digute gai horiei buruz euskaraz argitaratutako lanek. Euskaraz idatzitako lan hauek emango diote ospea, zientzia-gai horiek aztertu, irakatsi eta euskaraz argitaratu zituen lehena izan zelako. Jarraibide ederra eskaini zien geroago etorriko ziren zientzialariei, eguneroko lanen fruituak euskararen onerako euskaraz argitaratzera bultzatuz.

#### aa. "Karmengo Argia" aldizkariko idazlanak (1931-1936)

Euskal karmeldarrak, 1931.eko hasieran "Karmengo Argia" aldizkaria, euskara hutsean, argitaratzen hasi zirenean, atak ireki zitzaizkion Aita Gabireli hain maite zuen euskara idatziz bultzatzeko; aldizkariko idazlerik sutsuenetariko bihurtu zen. Liburu honetako beste atal batetan ikusi daitekeenez, era askotako gaiak, esaterako, folklore eta historiari buruzkoak... aztertu eta argitaratu zituen, aparteko arretaz jorratzen dituela fisika, kimika eta natur zientziei buruzkoak.

Aldizkaria argitaratu zen urte guztietan zehar idatzi zuen, gerra zibilak eten zuen arte; aldizkarian idazle izandako karmeldar batzuk gorriak eta bost jasan zituzten, epaiketaz zorrotzen ostean urteetarako kartzeleratuak izan zirela, bertako gaiak, gehien bat, erlijioari buruzkoak ziren arren; epaitu eta kondenatua izan zen Aita Akesolok, aldizkariaren azken zuzendariak dioen legez, militarrentzat euskara bera zen gorrotatu eta kondenatu beharrekoa<sup>15</sup>.

Aldizkari honek, eskaini zion Aita Gabireli hain gogoko zituen aitaturtako gaiak zehazkiro eta didaktikoki euskaraz azaltzeko aukera. Eta, zer esanik ez, aldizkarian argitaratutako lanek izan ziren gero liburu mardul eginda argitaratutako zituenen ardatz-gunea. Argi ageri da, ageri ere, aldizkarian argitaratutako hainbat marrazki, argazki eta testu, geroago *Pisia* eta *Kimia* liburuetan agertu zituenean antzekoak direla.

#### bb. *Pisia* (1935)

Idazlan hauen osagarri modura eta multzo orekatsua osotuz, 1935.ean *Fisia* deitu zuen 303 orrialdetako liburua argitaratu zuen Bermeoko Gaubeka inprimategian.

Liburuak, zientzia gai hau, lehen aldiz, eta oso zabal eta euskaraz zekarrelako, miresmen handia sortu zuen eta harridurazko eta aldeko kritika ugari jaso. *Karmengo Argia* aldizkarian (1935, 58. zk.) "Uribe'ko Jauna" ezizena zerabilen Martin Uriartek honako hau zioen: "*Gabirel'ek darabilen euskerea be ezta gatxa: Yakintza guztietan erabili bear diran esakuntza leun, garbi ta laburrak darabilz'...*" *Irudiak, geyenak, garbiak eta naste bakoak dira; eta, uste dodanez, geyenak-be etxetikoak. Itz-barriak asmatzen Jauregi Abak lan andia izan bear izan dau. Euskereak, edozer esateko, erderaren bearrik eztaukola erakutsi dau. Eta benetan euskerea oso aberatsa da'...*" *Jauregi' tar Gabirel' en idazti barri onek, euskereari bultza ederra emongo dautsela uste dot. Jauregin idazti barri au da aspaldiko euskal idazti-barrien artean ausartuena. Euskera 'Yasokuniztia' ikasi nai dabenak, ba' dauko non ikasi"*.

Urte berean, 1935.ean, Satarkak (Claudio Sagarzazu jaunak) iruzkina egin zuen *Euzkadí* egunkarian. *Yakintza* aldizkariak ere, (1935, 18.zki; 477-478. orr.) luze aipatzen zuen liburua. Gaztelera eginiko lan batetan honako hau zioen: "*Pozez heterik ematen diogu agurra euskaraz agertutako liburu honi. Aita Gabirel Jauregik, urteetan gaztea izan arren fisika zientzien irakaskintzan jadanik trebatu denak euskarari eskaini-berria dio omenaldirik ederrena bere jakituria eta irakasle lanaren fruitua liburu eder baten euskaraz argitaratzean. Atsegin handienaz irakurri dugu, honelako argitalpenek zailtasunak izaten dituzten arren. Idazkera argia eta erraza darabil, handia delarik ikasgaien ulergarritasuna; batzutan, gaur egun jendartean erabili-erabiliak diren literatur-lan askorena baino handiagoa. Hori, Aita Jauregiren aparteko merezimendua dugu"* (geuk itzulita).

Liburua berehala saldu zen; Aita Gabirelek berak hartu zuen horren ardura; salmentaz bultzatu zuten adiskideak ere izan zituen; oraindik bizi den Ana bere arreba hainbat eta hainbat ale saldu zituela aitortu digu.

<sup>15</sup> L. AKELOSO, *Idazlan guztiak*, Larrea - Zornotza, 1989, 1.t, 35. orr; 2. t., 1332. orr.



Aita Gabirelek, hurrengo urtean, 1936.ean argitaratu zuen *Kimia* liburuaren sarreran honako hau dinosku: “*Pisia gogoz eta biotzez artu eta zuekanatu daustazue. Gernika’ko Aboitiz-Musatadi sendi ospatsuari eskerrak, Pisia Euzkadi osoan erein neban; erein bakarrik ez, iru illabete barru emondako diruak eskuratu be bai*”.

cc. **Kimia (1936)**

*Fisia* liburuak izan zuen harrena onak bultzaturik, *Kimia* liburua, lehenbailehen, 1936.ean argitaratzen saiatu zen Bermeoko inprimategi berebean; oraingo honek 225 orrialde zituen.

Honetan ere hainbat marrazki ezarri zizkion testuari eta liburua hiru atal nagusitan banatu: 1. *Guztien kimia*. 2. *Mea kimia*. 3. *Ikazkaiaren kimia*.

Hala ere, ez dugu liburua argitaratu osteko iruzkinik; liburua bera ere gutxi zabaldu zen. Urte hartan sortutako gerra zibilak goitik behera aldatu zituen Aita Gabirelen bizitza nahiz kultura eta adimendu alorreko jardunak, orokorrean Euskazko biziera sozio-kulturala aldatu zuen bezala.

dd. “*Izadi-iztia*”

Badakigu Natur Zientziei buruzko hirugarren liburu bat ere bazuela inprimategirako gertatuta, hain zuzen ere, berak “*Izadi-iztia*” deitzeko asmoa zuena.

Azken liburu hau, berak “*Karmengo Argia*” aldizkarian eginiko idazlanen islada izango zen; fisika eta kimikari buruzko idazlanekin egin zuen bezala, natur zientziei buruzkoekin ere, berdintsu egiteko asmoa zuen: liburu batetan batu eta zabalago azaldu. Ez agertzearen erruduna gerra zibila izan zen, argitarapena eragotzi zuen eta; dena dela, penagarria da eginiko lanaren eskuskribua galdu izatea.

Aipatutako aldizkarian hainbat idazlan zituen argitaratuak, *ura*, *iturriak*, *mentuak*, *azeriak*, *txorien abiak*, *erleak* eta antzerakoak aztertuz eta hainbat izarren izaera eta naturan zuten eragina azalduz.

**V. GERRATEA ETA GERRAOSTEA (1936-1945)**

Gerrari eta bertan euskal karmeldarrek izan zuten egoerari buruzko berriak Aita Lino Akesolok dakartza, *Orain 50 urteko gerrate-nekeak karmeldarron gogoan* idazlanean<sup>16</sup>. Hark esaten duena hur-hurretik bizi izan zuen Aita Gabirelek gizartean nahiz komentu barruan. Bakarrik, Aita Gabirelek, 1936-1945.eko epealdian zehar bizilekku izan zituen komentuak aipatuko ditugu hemen. Gasteizeko komentua gartzela bihurtu zuten, gerra sortu eta berehala; bertan hil zuten Lauaxeta gure olerkari handia; hil aurretik karmeldar batekin aitortza egin eta berari eman zizkion bere azken olerkiak... Markina,

<sup>16</sup> Karmel 1987-3, 38-63 orr.

koartel egin zuten eta praileak komentua utzi beharra izan zuten... Larreako praileek (Zornotza) gerratean euskal gudari abertzale gazteen babesa jaso zuten, baina, frankotarren armada heldu zenean, mendekua zela nagusi, nekealdi gorriak, heriotzeak eta kartzelak tarteko zirela, izan zituzten.


#### a. Aramaion (1936-1937)

Aita Gabirelek irakasle lanetan Gasteizen eginiko azken egintza, 1936.eko ekainaren 16an, filosifiako bigarren eta hirugarren mailetako ikasleen aktak sinatzea izan zen. Hilabete geroago, bere anaia Angelorekin batera, Aramaion aurkitzen zen, Uztailaren 18an Arexolako Santa Marinaren jaiak ziren eta gurasoen etxera joanak ziren jaiak ospatzera.

Eta han, jaietan zirela harrapatu zituen militarren altxamenduak eta, ondorioz, gerrate zibilak. Eta bertan jarraitu behar izan zuten hainbat hilabetetan zehar, lehenengo hurreko parrokiei laguntza ematen, apaiz batzuk ihes egin behar izan, eta parrokiak apaizik gabe geratu zirelako.

Baina, hasierako parrokiotako ezusteko egoeraren ostean, Aita Gabirelek Aramaioko haraneko Azkoaga, Barajuen eta Untzilako parrokien eta Gizpuzkoako Zarimutz, Mazmela eta Maringoen parroko ardura hartu zuen<sup>17</sup>.

Gerrako egoera nahasiak kezka eta ezbehar ugari ekarri zien Aramaioko familiei. Honela kontatu digu beraren arreba Anak: "jaixetan, musika-jolea etxeik etxe erueten zan



<sup>17</sup> GPKA, C, 71. kutxa.

*txandaka, toketan zanién, jatera edo lo eitera. Gure etxien be eon zan. Etxien ardura barik berba eiten genduen politika gaineán. Urte haretan musika-jolea "el burgalés" deitzen zana izan zan eta denuntzixe sartu euskun. Estualdi ederra etorri jakun. Aita Gabirelek lagun haundixek eukazan Vitorixan eta horri esker bakien itxi euskuen".*

Aramaion parroko-lanetan egin zuen aldi horretako barri bila ibili gara bateo liburuetan eta berak bateatutako batzuen izenak aurkitu ere bai; horrela, esaterako, gaur egun Ibarroko parrokoa dugun Jesus Mari Elejalderen anaia den Joan Ander Elejalde Plazaolarena: "*En el lugar de Azcoaga, provincia de Alava, Diócesis de Vitoria, a veinte y siete de diciembre de mil novecientos treinta y seis, yo Luciano (por Gabirel) Jauregui, encargado circunstancialmente de la iglesia de S. Juan Bautista, bauticé solemnemente a un niño a quien puso por nombre Jon Ander (Juan Andrés)*"<sup>18</sup>.

Aita Gabirelek bere oharretan, Aramaion parrokia lanetan zebilela, 1936. eko urriaren 28an Eusko Jaurlaritzak deitu eta Justizia eta Kulturako Ministeritzak euskarazko testuen Idazle Ofizial izendatu zuela dinosku. Eta geroago, izendapen hori Bilboko espetxeetan zeuden Aramaioke bederatzi herritar askatzeko erabili zuela<sup>19</sup>.

Era berean, aitatutako ohar autobiografiko horietan, bide batez, Aramaion egin zituen jardun batzuen berri ere ematen digu. Horrela, 1937.eko martxoaren 26an Azaña batailoiko komendantearen baimena jaso zuela lubanen ondoko baserri bateko emakume gaixo bati azken sakramentuak ematera eta ondo hiltzen laguntzera joateko; alderdi bieta-koek alde neutralizat jotzen zuten aldera joan eta gauean Gastañaga auzoko guztiak aitortzen jardun zuela eta batzuei biderako (biatik) modura eta besteei jaunartze modura Gurejauna eman ziela, larunbat santuko eguna urratu aurretik, goizean goiz, berehala, Azkoagako parrokiara itzuliz.

## **b. Markinan (1937.eko maiatza-azaroa)**

Aita Gabirelek dino zazpi hilabetetan zehar 6 parrokiaren ardura izan zuela Aramaion, baina, ez dakigu guztiz ondo zazpi hilabeteok parrokiaren ardura izan zuen epeari ala Aramaion egindakoari dagozkion. Ana, bere arrabak 8 hilabete egon zala esan digu. Badakigu gerra sortzean, uztailaren 18an, Santa Marinaren jaián Aramaion aurkitzen zela.

1937.eko maiatzaren 21ean heldu ziren Gabirel eta Angelo anaiak Gasteizeko komentura. Gabirel berberak dinosku 1937.eko maiatzean Ordenako nagusiek Markinako Karmenera bidali zutela<sup>20</sup>.

Han aurkitu zuen egoera nahiko negargarria zen... Gerra hasterakoan komentu hartan 9 apaiz, 3 anaia eta 15 karmeldar ikasle gazte eta bi karmeldargai gazte zeuden. Bildur eta ardura artean, baina lehen hiru hilabeteak komentuan egin zituzten. Baina, gero, komentua utzi beharra izan zuten. Aramaiokoa zen Aita Zeziliok, komentuko kronikan, honako hau

<sup>18</sup> "(Juan Andrés)", gakoak beste norbaitenak dira eta behar bada "Juan Andrés" bera ere bai, estuago idatzita dago eta; "Jon Ander" gakoak jarri zituen berberak zirriborratuta dago.

<sup>19</sup> GPKA, C, 71. kutxa, Gabrielen testu autobiografikoa.

<sup>20</sup> Gasteizeko Karmeldarren etxeko artxibategia, Egunerokoa, I, 49 orr.

kontatzen digu: “*Aita Pio eta Kandido (hau Txiletik etorri eta aldi baterako zegoen Markinan) Txaraka baserrian ostatu ziren; Aita Higinio eta Aita Jazinto, Berrizkoak, euren etxetara joan ziren. Zezilio Aramaioarrak eta Urbanok Olabe baserrian izan zuten babesa; Aita Bautistak Bermeoko bere etxean. 15 ikasleei zegokienean, beraian etxera joateko aukera zutenak familietan babestu ziren; eta gainerakoak, burruka-mugak eragotzitakoak, Aingeru-Guardako baserrietan zehar sakabanatuak izan ziren eta geroago Munitibar eta Amorotokoetan. Gazte hauek, beren egotaldia nolabait ordaintzeko, baserriko zereginetan laguntzen zuten. Komentua erlebu-koartel egin zuten...*”

1937.eko apirilaren 27an etorri ahal izan zuten karmeldarrek Markinako Karmengo komentura... Eta laister batu zen bertan 10 apaizek osturiko taldea, Aita Gabirel tarteko zela. Komentuko kronikek *Pisia* liburuaren egilea bertan izan zela jasoten dute.

Irailaren azkenetan, Aita Silverio de Santa Teresa, Erromako Definitore Nagusiak eginiko ikustaldi kanonikoa izan zuten; praile hau idazle ospetsua zen eta Ordenako Goi Nagusi izatera heldu zen. Baina, gerra zibilari eta euskal kutsua zuenari zegokienean, oso gizon zetatia izan zen eta, espainolismoz beteriko suak eraginda, duintasun gutxiko arauak eman zikiela Markinako etxekoei uste dugu gaur egun<sup>21</sup>. Ez dakigu, hala ere, zer sentituko zuen barruan Aita Gabirelek ikustaldi hartan.

Urriaren 4an Markinako fraide-taldeak etxeko hirugarren kontseilari aukeratu zuen, ohiturazko bideari jarraituz ixilpeko botaketa bidez, Aita Gabirelek 7tik 5 botu alde jaso zituela<sup>22</sup>.

### c. Larrean (1937-1945)

#### aa. Gerra garaian

Ez zen luzaroan egon Markinan, urte bereko 1937.eko azaroan Larreako komentura, hain zuzen, 1913.ean karmeldar bizitzari hasiera eman zion etxe berberera bidali zuten eta.

Oraindik gerrateak jarraitzen zuela, Larreako egoera ere ez zen bat ere ona, Markinako baino hobeagoa izan arren. Baina, gorriak izan ziren bera heldu aurreko hilabeteak... Gerra sortu zenean Larreako nagusi Aita Rafael de San José (Jose Sotero Urionaguena, Bolibarreko semea, 1890-1975) zen; beronek hiru koadernotan hainbat berri jakingarri eta zehatz utzi zizkigun idatzita, 15 kapitulutan hango karmeldarrek, 1936-1937.eko epealdian zehar izan zituzten gora-beherei buruzko hainbat berri jasoz. Komentua, hasieran euskal gudari abertzale gazteen babespean izan zen. Gero, hainbatetan koartel egin da... Eragozpenak handitzean erlijioso batzuk Etxanora joan behar izan zuten bizitzera... Batzuk, euren buruak arriskuan ikusirik, atzerrira ihes egin beharra izan zuten. Aita Roman, azpikeriaz eta gezurrez salatua izan ostean, besterik gabe komentuko hormaren kontra fusilatu zuten eta ortuan bertan eman zioten lurra.

<sup>21</sup> Ik. J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*, Larrea - Zornotza, 1992, 290-293. orr.

<sup>22</sup> MKA, A-VI-1: *Liber actuum capitulorum*, 128. orr.

Guzti hauek gertatu eta berehala, 1937.eko azaroan heldu zen Aita Gabirel Larreako komentura.

Egoera larrizko garaia izanik, urte hartan oraindik gerra hasterakoan zegoen Aita Rafael zen Larreako legezko nagusi; baina, nazionalak sartu ostean bertako hainbat kide izan ziren espetxeratuak... Ordenako nagusiek etxeko priore Aita Angelico de S. Teresa, eta nobizioen maisu Aita Guillermo de S. José izendatu zituzten; hala ere, Aita Angelicok utzi egin zuen kargua hilabete egin ostean, eta, iralean, nagusi berri Aita Eladio de Jesús María izendatu zuten; hau zen, bada, priore Aita Gabirel heldu zenean<sup>23</sup>.

Gerrako gertakari negargarri hark areagotu zuen Larreako karmeldarren gizarte-erlijio alorreko egoera larri hura, hain zuen ere, inolazko errurik ez zuten praile batzuk kartzeleratzeak (Aita Leon Aranguren, Aramaioko Oletako semea, heriotzera kondetuta noiz hilgo itxaroten luzeroan egon ostean, Iruñeko artzapezpikuak eskuhartu ondoren, heriotz-zigorren ordeztu bizitza osorako zigorra jaso zuena; Markinako komentuko Aita Bautista eta Aita Santiago Onaindia de la Asunción, 30 urtetako kartzelera kondenatuak; Aita Rafael de San José, Aita Nicolás del Niño Jesús eta Aita Lino Akesolo de la S. Familia 16 urtetako kartzela zigorra hartutakoak; Aita Sebastián de S. Justo 12koa ezarri ziotena; Aita Angel de la Virgen del Carmen, 10era kondenatua; Aita Jose Domingo de Santa Teresa eta Aita Lucio de Santa Teresita 8 urtera zigortuak... eta beste batzuk hilak edo atzerrira ihes eginda... Egoera horretan egin zen 1939.eko apirilean Markinan Probintziako kapitulua. Hartu ziren arauak gerra osteko giro espainolistak eragindako kutsuz beteak izan ziren... eta, jakina, euskal abertzaletasun kutsurik zuten praile guztiak aginte-postuetatik aldentuak izan ziren<sup>24</sup>.

#### *bb. Jardunak*

Aita Gabirel, Larrean lehen aldiz aipatzen duen agiria 1937.eko abenduaren 16koa da; "examinator" izendatu zuten Larreako komentuko 7 botuetatik 6 eskuratu zituela; beraz, bere botua baztertuz, ahobatez izendatua izan zela esan dezakegu. Horrela, frailegai gazteak praile-bizitzarako onartu edo ez erabakitzeke ardura eman zioten. Ardura hau ia heriotze unerarte izan zuen<sup>25</sup>.

Baina, bere zibitzako azken urte hauetako eginkizunik garrantzitsuenak, ber-berak datu biografikoetan esaten digunez, ministeritza eta komentuko ondasunen administrazioa izan ziren.

Egia esan, 1937-1945. epealdiko kontu-liburuetan ageri diren zenbaki eta testuak bereak dira, baina, beste batzuk sinatzen dituzte<sup>26</sup>.

<sup>23</sup> LKA, A-I-2: *Libro de apuntes históricos del convento de Larrea*, 78. orr.

<sup>24</sup> Ik. J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan* (1691-1991). Historia eta agiriak, Larrea - Zornotza, 1992, 294-296. orr.

<sup>25</sup> LKA, [A-IV-3]: *Liber Actorum Capitulum Carmelitarum Discalceatorum conventus Larreae*, 148, 153, 177. orr. etab.

<sup>26</sup> LKA, G-VI-4: *Acceptum - Expensum*, 1932-1958.

Gerra osteko urteetan oso eskasa izan zen Larreako komentuko egoera ekonomikoa. Berau kronikalari guztiek aitatzten duten zera da. Eta Aita Gabirelek, etxeko diruzain lanetan aurre egin behar harako egoera larriari!

Komentuko kronikalariak (frankortar sutsua zela ageri duela) 1937-1938. ikasturteko egoera larria deskribatzen du; komentuko erlijioso apaiz eta anaiez gainera, nobiziatua hasteko beste 14 ikasle gazte etorri zirela, baina Larreako komentuak ez zuela hainbeste nobizio gazteri jaten emateko baliabiderik... dinosku<sup>27</sup>; zorretan zama handiak hartuak zituztenez, ezin zituztela nobizioak hartu jakinarazi ziotela Probintziako Definitorioari... Baina Karmeloko Probintziako Nagusien laguntza hartu ostean, nobiziatuak aurrera egin ahal izan zuela...

Aita Celsoren hirurtekoan (1940-1942), kronikalariak dinoskunez (oraingo hau beste bat dugu), egoerak larri jarraitzen zuen eta erabaki gogor batzuk hartu behar izan zituzten. Egoera ekonomiko larriari aurre egiteko ondasun batzuk saldu behar izan zituzten. Diruzaina edo ekonomoa Aita Gabirel zenez, berari leporatu zioten batzuk egindako *salmenten erantzunkizun astuna, baina, kronikatan argi eta garbi ageri denez, ondasunak saltzeko erabakiak, beste irtenbiderik ez, eta komentuko taldekako bileran, botueta jo ondoren, hartuak izan ziren.*

Horrela, 1941.ean eroritako dorretxeko harlanduak saldu zituzten 3.000 pezetatan. Era berean, jauregia deitzen zeneko lorategian zeuden zedro biak ere bai 2.200 pezetatan, beste 1.000 pezetatan saldu ziren zuhaitz batzuekin batera. Lorategia izan zena ortu egin zuten. Gertakari hauek berriketak sortu zituzten praileen nahiz kanpokoan artean, baina, kronikalariak argi esaten duenez, egoerak behartuta egin zen.

Aita Gabirel komentuko administrari izan zen garai horretan konponketa batzuk ere egin ziren etxean. Larreako komentuan, gerratean hainbatetan miliazianoek okupatuta egon zenean, horma batzuk bota zituzten; bi kainokadak ere komentua jo zuten kalteak eginez eta ikastetxe-jauregia suak hartu zuen. Besteren artean, komentu ondoko "etxe gorria" deritzona konpondu zuten; 3.000 pezetatan egiteko ziren konponketak, azkenean, 8.000 pezetara heldu ziren; obra egiteko ardura Eduardo Larrea Jnari eman zitzaion; gastuak ezin ordaindu eta akordio bat egin zuten berarekin, beheko solairua eta etxebizitza, obrek sortutako zorrak amortizatu arte, hilean 150 pezetako errentatan bere esku utziz.

Aita Narcisoren hirurtekoan (1942-1945), komunitateak egoera oso larrian jarraitzen zuen, janaria eta jantziak erosteko eragozpen handiak zituela; benetako gose egoeran bizi izan ziren. Esan dugunez gerra zibilaren osteko urteetan areagotu egin zen Larreako etxean eta beste komentuetan egunerokoan eskasia<sup>29</sup>.

Ordenako Jenerala izan eta une honetan Gasteizen bizi den Aita Migel Angel Bati-zek dinoskunez, gai gehienei ezarri zieten janarien kopuru-mugaketa (errazionamendua); besteren artean tabakoari, erretzaile-txantel bidez banatzen zela. Eta Aita Gabirel jo eta ke ibili ei zen komentuz komentu praile guztien txantelak batzen; ez, baina, erretzea bul-

<sup>27</sup> Ibidem, 79. orr.

<sup>28</sup> Ibidem, 95. orr.

<sup>29</sup> LKA, A-I-2: *Libro de apuntes históricos del convento de Larrea*, 97. orr.



tzatzeko asmotan, txantelen bidez eskuratzen zuen taboa “estrapeloan” saldu eta jatekoa lortzeko baino. Ehun bat txantel ei zeuzkan eta legez lortutako erretzaile-txantelen bidez, merkatari eta hornitzaileengandik komentu ezberdinetarako eguneroko beharrezko gaiak eskuratzen ei zituen.

Estrapelo honek Aita Gabirelen izaera ezagutzeko bidea eskaintzen digu. Horrela, aitautako Aita Migel Angelek dinosku, behin baten, Markina eta Larreako komentuetarako “makailoa” eskuratzera lagundu ziola Abastoetako Agintariengana, eta ikustekoa zela, benetan, nola azaltzen zien merkatari haiei karmeldarrek arrain gehiago behar zutela, abstinentzia bete beharra zutela esanez. Erabiltzen zuen gaztelera oso eskasa zenez, berak ez ziotela ulertuko uste izan eta, haren ikasle zela esanez, elkarrizketan muturra sartzeari ekin ziola. Zurt eginda geratu ei zen Abastoetako fiskalari, —”zuk zer ikasi ugari duzu, oraindik, horrengan” esanez, Aita Gabirelek negozioetarako zuen trebetasuna goraiatzaren entzutean. Eta handik bi “makalao” zaku, bata Markinarako eta beste Larrearako aldean zituztela atera zirela; Migel Angel gazteak zaku bat eraman behar izan zuen Elgoibartik zehar Markinaraino.

Eguneroko bizitzako beharrezkoen aurre egiteko estutasun handiak izan arren, konponketa batzuk egiten jarraitu zuten; garai hartan egin ziren, esaterako, eliza aurreko orrigoizko aulkiak, gastuetarako elizara etortzen ziren eliztarren artean aparteko diru-batzea eginez; aulkiak kostatu ziren 1.000 pezeta inguru batu zuten. 1944.ean Larreako karmeldarrek hilobiak gertu zituen panteoi bat erosi zuten 5.000 pezetatan.

Egoera ekonomiko larri honetan izan arren, priorearen anaia zen Nazario Garate Mugika, sute batek ezertxo gabe egoera guztiz larriari utzi zuenean, haren alde egin zuten Larreako fraileek 1.000 pezetako laguntza emanaz.

Hirurteko honetako helbururik nagusiena pastoraltza, hau da, kofradiak, besterik beste Pragako Ume Jesusen Artxikofradia, “Semana Devota” edo Karmengo kofradia deitua, berriro antolatzea izan zen<sup>30</sup>.

Aita Gabirelek aurre egin behar zion harako egoera ekonomiko larriari; Aita Martin de P.C. de María, komentuko hurrengo priore (1945-1948) izan zenak Aita Gabireli eskaintako heriotze osteko oharrean, komentuak aurre egin behar izan ziren egoera zail eta larrietan, Aita Gabirel, ahal izan zuen adinean, harako eragozpen gorriak aldentzen saiatu zela, eta Larreak Aita honi zer eskertu ugari zuela dinosku<sup>31</sup>.

#### *cc. Gaisotasuna eta heriotzea*

Aita Martinek, bere kontaketa dinoskunez, 1944.eko ikasturtean Aita Gabirel “endocarditis” gaitz larriak jo zuen. Bihotzak ez zion egokiro erantzuten.

Gaur egun Markinako komentuan bizi den Aita Juanek gogora ekarri digu, data haietan, apaiz batek pastoraltza-laguntza eskatu ziola bere elizarako eta Aita Gabirelek,

<sup>30</sup> Ibidem, 98-99. orr.

<sup>31</sup> LKA, A-IX-1: *Memoria de los religiosos fallecidos en este convento de Larrea*, 27. zk.

gogoeta egin ostean, kalkuluak eginez “-Bai, ondo dago, oraindino bete ahal izango dot eginkizun hori-” erantzun ziola esan digu; heriotzea baino hila-bete batzuk lehenago zen eta, hala, laguntza hura eman ostean hil zen.

Ageri denez, bihotzeko makaltasuna handituz joan zitzaion. Larrean zegoela, Arrazolaraino trenez joaten zen, handik Tellamenditik zehar Aramaiora oinez joateko. Arrazolan, Elena Uribarren (orain Heranin bizi dena) Etxaguengo lehengusina zeukan Kiputxena baserrira ezkondu eta beti egiten zion ikustaldiren bat.

Egin-eginean ere, gaixotu baino zerbait lehenago mendiz Aramaiora eginiko azken ibilaldian agertu ei zitzaizkion lehen seinaleak; Ana bere arreba esandakoaren arabera, egun hartan oso nekatuta heldu ei zen Arexolara. Antz eman zioten etxean zerbait gertatzen zitzaiola, larri ikusi zutelako. Tellamendiko aldatsa igon ezinda ibili zela aitortu ei zien. Ez zen gehiago hain gogoko zituen mendi-bideetatik ibiliko.

Heriotze aurrean Aita Gabirelek Ana, arreba gazteena ikusteko gogo bizia agertu ei zuen. Arreba hau zuen maiteena, etxean gurasoekin bizi zelako edo. Orduko legeen arabera, komentuan klausura estua izatean, ezinezkoa gertatzen zen bertara emakumerik sartzea. Komentuko lehio batera aterata, egin ei zion azken agurra.

Aita Martinek dinosku ahalegin guztiak egin eta ezagutzen ziren sendabide denak eman zitzaizkiola. Garai hartan hain garestia zen pelizilina ere bai. Guzti horiek ezin izan zuten geroago eta hurrago zuen heriotzearen etorrera gelditu. Heriotze-egunean, hainbat otoitz egin ondoren honako hau esaten ei zion Andra Mariari: “zuri, Andra Mari, ez deusut ezer esaten, ama zaitut eta...”<sup>32</sup>

<sup>32</sup> Ibidem.



Kronistak aitatzten duen penizilina Aita Angelo bere anaiak Protugalen lortu eta bialdua izan zen. Eta, benetan, aparteko aitaketa egitea merezi du anaia biak izandako azken ikustaldiak. Lekuko izan zen Larreko anaia Teodorok kontatutakoaren arabera, Gabirel hil zen egun berean goizez heldu ei zen Larreara Portugaletik Aita Angelo azken agurra ematera. Gaixoaren gelan sartu ei zen baina hitz egiteko asti handirik gabe. Bihotzak dar-dar agurtu ei zuten elkar eta ia berehala, bestelakorik gabe, eman ei zuen azken arnasa. Badirudi anaiaren zain egon zela agurtu eta hiltzeko.

1945.eko otsailaren 2an, Andra Mariaren Garbikunde jaiegunean hil zen klaustroko azken gelan, orain biblioteka ondoan dagoenean. Bere gorpua Zornotzako kanposantuko panteoi berriko 15. nitxoan jarri zuten.

Lagunkide eta irakasle izan zuten hainbat karmeldarrek begikotasunez gogoratzen dute oraindik. Horien artean dugu aitatu dugun Aita Migel Angel Batiz, filosofian, bi ikasturtetan (1934-1936) Aita Gabirelen ikasle izandakoa. Praile honek dinosku, erlijioso osoa eta irakasle ona zela. Ez zuela ikasgelan bereizkeriarik edo kolkokeriarik erabiltzen; bere betetzekoak argi ikusirik gogoz bultzatzen zituela ikasleak gaiak ikastera, fisika eta kimikan ezer gutxi ulertzen zutela ikustean, irribarre egin eta arloak azaltzen jo eta ke ahaleginduz. Ahalegin handiak egiten zituela gaiak, Cervantes-en hizkuntzan azaltzen, baina erdara traketsa, sarritan euskarakada handiak tartekatuz, erabiltzen zuela. Giza-hartuemonetan, ostera, buru eta bihotz bakea eta benetako adiskidetasuna bilatzen zituela eta guzti hori lagunarteko berbeta samurra erabiliz; erdara erabiltzerakoan, ez ziola garrantziarik ematen, tarteka-marteka, hizketa-katean euskarakadaren batzuk sartzeari.

Hartuemonetan hain tratu onekoa eta bihozbera izateari esker, berehala bereganatzen ei zituen ingurukoak. Etxekotzat hartzen zuten hainbat familia ezagutu zituela Gas-teizen eta beraren bihozberatasuna eta eskuzabaltasuna goratzen zutela guztiek, inguruko-en saminen berri jakiten saiatu eta larrialdean edo nahigabeen zeudenei laguntza ematen jakiten zuelako. Jendeak benetan maitatua izatea lortu zuela. Antzerakoak dira beste hainbat karmeldarrei entzundakoak ere. Beude, bada, azken aitorpenok, arimaz, adorez eta bihotzez oso-osoa izan zenaren goraipamenerako.

## VI. AITA GABIREL JAUREGI EUSKAL KARMELDAR IDAZLE TALDE BATEN ORDEZKARI

Aita Gabirel Jauregi Uribarrenen bizitzako gora-behera nagusiak jarri eta euskal munduan, batez ere, *Fisia* eta *Kimia* idatziz, zientzia alorrean lehen urratsak emanik nor-tasun handiko bidegile izan zela ikusi dugu.

Ikuspegi batetik bidegile badugu ere, ez dugu Euskal Herriko karmeldarren artean euskal kultura arloan jardun izan duen lehena ez eta azkena ere. Ez dugu, bada, harritze-koa, bera bezalako norbait euskarako lanetan nabarmentzea. Karmeldar Ordena barruan, izan da Gabirel baino lehenago ere euskal idazle ospetsurik. Gaztetxoia izanik Larreara ikasketak egitera joan zenean, euskara, bestelako ikasgaien artean normaltasun osoz jarria zutela ikusi izan dugu. Txikitatik hasi zion, bada, etxetik ondo ikasi zekarren euskara

sakontzeari eta aberasteari. Larreara hamalau urte zituela joan zen landara gazteak girorik ederrena aurkitu zuen erroak sendo bota eta tantai haundi ederra egiteko. Tradizioz ere, errotuta zegoen euskaldun karmeldarren artean, euskara sakontzeko eta sermolari onak gertatzeko ohitura.

Karmeldar gazteak, aurreko beste karmeldarrendik hartutako lekukoa jaso eta haien bideei jarraitu baino ez zuen egin. Garai hartako euskalzaletasunaren adierazgarri dira, Aita Gabirelen ikasle izandako zenbaitek (*Akesolo*, *Onaindia*, *Abasolo*), bera Gasteizen irakasle zutela euskarako hainbat sari eskuratu izatea. *Karmengo Argia* aldizkaria ere giro horretan sortua dugu. Aita Gabirelek hasieratik jardun zuela aldizkari horretan gogotsu idazten ikusi dugu. Egia esan, politikoki ere, giro abertzale batetan bizitzeko zoria izan zuten eta ez zuten behar izan aparteko bultzadarik euskaltzale gazte haiek euskara maitatu eta sakontzera jotzeko.

Hemen, laburkiro, Karmeldarrek, Aita Gabirel barru dela, euskal kulturaren alde idatziz (beste askok sermoi bidez edo eta euskararen aldeko egintzak bultzatuz ere egin baidute) eginiko lana gogora ekarri nahi da, laburkiro, inguruko giroak izan ohi duen eragina aditzera emateko. Argi agertuko zaigu, aintzinakoen lana alde batera utzita ere, Aita Gabirelen egunetan, bere irakasle, nagusi eta ikasle izan zirenen artean euskal idazle talde emankor ederra izan zela.

#### a. Aita Gabirelen aurrekoak

Labur-labur baino ez ditugu gogora ekarriko Aita Gabirel baino lehenago euskal idazle ospetsu izan ziren karmeldar batzuen izenak. Gorenengo mailan, gehien idatzi zuelako eta bizkaieraren eramuan klasikoa dugulako hain ezaguna dugun **Aita Bartolome Santa Teresa** (1768-1835), Markina ondoko Etxebarria herrikoa dugu. Hainbat liburu mardul idatzi zituen euskaraz: *Euscal-errietaco olgueeta ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba*, Iruñea, 1816, 208 orr.; *Jaungoicuaren amar aguindubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac*, Iruñea, 1816, X - 178 - 32 orr.; *Jaungoicuaren amar aguindubeetaco azqueneco bosteen icasiquizunac*, Iruñea, 1817, IV - 301 orr.; *Eleisaco zazpi sacramentuben icasiquizunac*, Iruñea 1819, VI - 376 orr., elizako gaiez aparte herriko hainbat ohitura ere jasoz<sup>33</sup>; gatzeleraz ere idatzi zuen euskararen defentsa sutsua eginez<sup>34</sup>.

Hau baino mende erdi lehenago bizi izan zen Aita Jose de Jesús María (Jose Antonio Arakistain, 1700-1764). Itziarko seme honek Larramendiren *Diccionario Trilingüe* deituari iruzkinak eta ekarpenak egin zizkion, Nafarroako hainbat herritan, sermoiak egitera joan eta jendearen ahotik jasotako hitzak bildu ondoren. Gogora ekarri behar dugu, baita ere, Aita Migel de San Francisco (Migel Ignazio Zuzaeta, 1745-1814) Gerrikaitzeko semea. Aita Ondarra argitaratzekotan da beraren 19 sermoi eder.

<sup>33</sup> J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*, Larrea - Zornotza, 1992, 417-421. orr.

<sup>34</sup> Juan José MOGUEL, *Plauto bascongado o El bacuence de Plauto en su comedia Poenulo...*, 1828. 125 orr. eta *Anti-Plauto políglota o Defensa de Plauto Bascongado y de la impugnación del Manuel de la lengua basca de Mr. Lécluse*, 1829.

Baina beragan eragin zuzenagoa izan zuten idazle euskaltzale porrokatu garaikide batzuk ere aipatu behar ditugu, euren bultzadari esker heldu zelako Aita Gabirel buru-belarri euskal munduan jardutera. Gehienak bera baino geroago hilgo ziren. Beraz, euskararen aldeko bidean lagun izan zituen.

– **Aita Martín del Purísimo Corazón de María** (Martín Uriarte Odriozola, 1879-1960, Zeanuriko semea), Aita Gabirelek Larrean latinitate-ikasketak egitean maisu izan zuena. Geroago, bere garaikide ere bai. Ospe handiko euskal sermolaria izan zen. Gerra aurrean Karmeldarrentzat euskal munduan beraien mezua zabaltzeko bide ederra izan zen *Karmengo Argia* aldizkariaren sortzailea eta lehen zuzendaria. Bertan hainbat idazlan idatzi zituen, aipagarrienak arrakasta handia jaso zuten “*Baserri gaiak*” eta “*Egi biribillak*” izan zirela. Hainbat sermoi ere utzi zituen idatzita. Beronek idatzi zituen, Aita Gabirel hil ondoren, berari buruzko heriotze osteko oharra ere.

– **Aita Doroteo de la Sagrada Familia** (Leñiz Zuazua “Barrutia”, 1883-1948) Eskoitzako semea. Aita Gabirelen aurreko eta, era berean, garaikide ere izan zen hau, sermoilari ospetsua izateaz gainera, *Karmengo Argia* aldizkarian hainbat idazlan txiki idatzia dugu.

– **Aita Leoncio (Lontzi) de S. Juan de la Cruz** (Pedro Ormaetxea, 1891-1949) Bizkaiko Etxanoko semea. Hau, prailletzan zaharragoa baldin bazen ere, hainbatetan garaikide ere izan zuen Aita Gabirelek. Euskal sermoilari ospetsua izateaz aparte, idazle on bat ere izan zen; *Karmengo Argia* aldizkarian prosazko hainbat idazlan eta 58 olerki argitaratu zituen. Gerratean Amerikara ihes egin behar izan zuen, luzaroan Espainiarantz etorri ezinean egon zelarik. Amerikan bizi zela bere bizitzako bi azken urteetan bi olerki-liburuska argitaratu zituen<sup>35</sup>.

– **Aita Hipólito de la Sagrada Familia** (Alejandro Larrakoetxea, 1892-1976) Zeanuriko semea; oraindik oso gazte zela Aita Gabirelen irakasle ikusi dugu Teologiako ikasturteetan bai Begoñan bai Kalagurrin; gobernu gizon eta legegizon ospetsu eta euskaltzale porrokatu honek ere hainbat idazlan idatzi zituen *Karmengo Argia* aldizkarian eta Euskadiko beste hainbatetan; euskal gramatikari buruz idatzi zuen eta argitaratuak ditu bi itzulpen liburu euskaraz. Berak itzulitako *Grimm Anayen ipuinak* liburua oso erabilia izan zen Bizkai aldean euskaraz alfabetatzen hasi berri ziren gaztetxoaren artean. Gaztetan gogoz irakurri izaten genuen, Arratiako euskararen ispilu ederra den liburu atsegin hori. *Itun Barria* ere euskaratu zuen Olabideren bidetik, bizkaieraz, baina ez zen argitaratu<sup>36</sup>.

## b. Aita Gabirelen garaikideak

– **Aita Angelo de la Sma. Trinidad** (Jose Jauregi Uribarren, 1897-1978) Aita Gabirelen anaia. Begiratu liburu honetan berari buruz idazten dugun aparteko kapitulua.

<sup>35</sup> *Ipuintxuak*, Santiago de Chile, 1947, 103 orr.; *Bigarren Ipuintxuak*, Santiago de Chile, 1948, 103 orr.

<sup>36</sup> *Grimm Anayen ipuinak*, 1929, 328 orr.; *Erroma'ko Eleizearen Araudia* (euskaraz), Tolosa, 1978, 471 orr.; zenbait eleberriz euskaratu zituen, esaterako, Cervantesen *La tía de Cornelia* eta *La fuerza de la sangre*.

– **Aita Pio de Santa Teresa** (Etxebarria, 1899-1945) Bizkargiko maldetan jaioa; Aita Gabirelen ikaskide izan zen filosofia eta teologia urteetan. 1933.ean *Karmengo Argia* aldizkariaren ardura hartu zuen indar berri bat eman ziola. Hainbat idazlan idatzi zituen bertan. Bere idazlanik handiena *Goiz-zale*, Kempis-en itzulpena izan zen. Hiru argitaraldi izan zituen 1926, 1936 eta 1956.ean.

– **Aita Narciso de los Angeles** (Jose Antonio Garate Mugica, 1900-1974), Azkoitiko semea; oso ongi ezagutzen zuen euskara eta joskera erraza eta herri kutsu handikoa zuen. Beraren idazlanik ederrena *Lisieux-eko Santa Teresa* eskusribu autobiografikoa euskarara itzultzea izan zen; argitaratu barik dago. Berau zen Larreako nagusi Aita Gabirel bertan hil zenean.

### c. Aita Gabirelen ikasleak

Aita Gabirelen garaikideak eta 9-16 urte gazteagoak ditugu karmeldarren artean euskal letretan gizonik ospetsuenak, bai kalitatez bai eta kopuruz. Halako hainbat, Aita Gabirelaren ikasle izan ziren Gasteizen filosofiako ikasketak egiterakoan. Bera izan zuten fisika eta kimika irakatsi zien irakaslea. Berak bultzatu zituen euskaraz idaztera eta sari-keta batzutan parte hartzera. Aita Akesolok gogoratzen zuenez, filosofian ikasle zela *Agure kezkatia* itzulpenarekin saria lortu zuenean, Aita Gabirelek, “liburuetatik eskuratu-takoa liburuetan erabiltzekoa” aintzinako esaera zaharrari jarraituz, sarian lortutako dirua euskarazko liburuak erosteko erabili ei zuen, berak lehen aldiz Azkueren morfologia eskuratu zuela. Hona hemen ikasle izan zituen ospetsuenak:

– **Aita Emiliano del Niño Jesús** (Julian Barandiaran, 1904-1967), Eskoriatzako semea; *Karmengo Argia* aldizkarian idazlan bakar bat idatzi zuen, baina, geroago, gerra ostean, preminarik larriena zegoenean, jo eta ke jardun zuen euskara bultzatzen. *Karmel eta Zeruko Argia* aldizkarietan idatzi zuen. Hiru liburu argitaratu zituen eta hainbat idazlan utzi zituen argitaratu gabe<sup>37</sup>.

– **Aita Nicolas de Jesus** (Bizente Batiz, 1907-), Gerrikaitzeko semea; euskal idazle modura, Buenos Aires-eko eta Euskal Herriko hainbat aldizkaritan parte hartu zuen prosa-lanen nahiz olerkien bidez; horrela, esaterako, *Zeruko Argia*, *Euzkadi*, *Karmengo Argia*, *Eguna*, *Karmel*, *Euzko-Gogoa*, *Agur*, *Agoiz Argi* aldizkarietan. Era berean, 1973.eko abuztuan *Gurutz-Bidea* argitaratu zuen euskaraz. Ordenako liturgia-testuak euskaratzen aritu da azken urteotan.

– **Aita Agustin de S. Francisco** (Franciso Atutxa Bikarregi, 1908-1973), Dimako semea; arterako sentikortasun handiko pertsona izan zen eta euskal kultura eta hizkuntza bere herritik kanpo bizi izan zituen. Zenbait aldizkaritan parte hartu zuen, batez ere *Karmengo Argian*, dozena bat olerki idatziz. 1969.ean Karakas-en *Mugarra Begiraria* (94 orr.) poema argitaratu zuen.

<sup>37</sup> *Andre Mari Euskalerriko mendietan*, Bilbo, 265 orr.; *Andre Mari Gaztediaren Eskuetan*, Gasteiz, 1954, 280 orr.; *Arrate'ko Ama Sortzez Garbiaren kondaira eta bederatziiurren laburra*, Bilbao, 1960, 19 orr.



– **Aita Lucio de S. Teresita** (Domingo Agirre, 1908-), Dimako semea; oso praile ezaguna eta maitatua Bizkaia osoan. Luzaroan sermoilari lanetan eta prailletzarako mutiko bila ibilia. Ezizen asko erabiliz prosaz zein bertsoz egin izan ditu euskarazko idazlanak batez ere *Karmengo Argian* eta *Karmelen*. Idazkera erraza eta zehatza erakutsi izan du.

– **Aita Antonio del Niño Jesús** (Jose Antonio Goiria Muniosguren, 1908-1990), Galdakaoko semea; literatura iharduerari dagokionean, prosa zein olerki lanak, *Karmengo Argia* eta *Karmel* (azken honetan 70 idazlan labur eta 20 olerki argitaratu zituen), *Jaungoikozale*, *Euzko-Gogoa*, *Egan*, *Oleriti*, *Euskal-Esnalea*, *Ekin*, *Goiz-Argi*, *Agur*, *Zer* aldizkarietan argitaratu zituen. Horretaz gainera sei liburu ere argitaratu zituen eta beste batzuk argitaratu barik utzi ere bai<sup>38</sup>.

– **Santiago de la Anunciación** (Santi Onaindia, 1909-) Amoroito jaioa, Karmeldarren artean eta Euskalerrri osoan euskal idazlerik ugaritsuenetakoa. Hainbat eta hainbat idazlan labur (550tik gora) idatzi izan ditu 25 aldikaritan, *Karmengo Argian* hasi zela prosaz eta bertsoz idazten; *Karmel* aldizkariaren bultzatzaile eta zuzendaria eta *Oleriti* aldizkariaren sortzailea ere badugu. Bere-bereak dituen lanak eta besteenak batuta 60 bat liburu argitaratu ditu euskaraz, guztien artean behinenak, hain eragin handia izan zuen *Milla euskal-olerki eder* (1954), *Jolasketa* (1965), *Laminak* (1978), *Euskal Literatura* (1971-1990) liburua ditugula. Itzulpen alorrean ere lan handia eginikoa da. Hogeigarren mendeko euskal kulturaren gorenengo maila lortu duen gizona dugu<sup>39</sup>.

– **Aita Lino de la Sagrada Familia** (Akesolo, 1911-1991), Dimako semea; euskal gaietan mende honetako pertsona jakintsuenetakoa izan zena; bizkaiera alorrean euskal idazle klasiko bihurtu da. Bere idazlanen artean, Manu Sotak utzitako fitzak abiaburutzat hartuz, bizitzako azken hamabost urteetan zehar burutu ondoren, Retana Jnak 9 liburukitan argitaratutako *Diccionario... de Autoridades de la lengua vasca* (1976-1989), hau da, Akesoloren hiztegi handia aipatu beharra dugu. Lan erraldoi horrekin batera artikulu ugari idatzi zituen 32 aldizkari ezberdinetan, ia denak euskaraz edo euskal gaiei buruz, eta bere idazlan guztiak hiru liburutan argitaratuak izan dira (*Idazlan guztiak*, Larrea - Zornotza 1989-1992, 2.050 orr.). Era berean itzulpen asko egin zituen. Gerra ostean, euskaraz ezer gutxi egiteko aukera zenean, hainbat erlijio liburu itzuli zituen gazteleara alemanieratik eta inglesetik.

– **Aita Lorenzo de S. Teresita** (Lon Arteaga Bilbao, 1919-1980), Mañariko semea; hau ere Aita Gabirelen ikasle izan zen, 1935-1936. ikasturtean ikasketak osotzera Indiara bidalduta izan aurretik. Indian ta Amerikan urte asko egin ondoren euskaraz idazten jardun zuen. Ez zen idazle ugaritsua izan, hala ere, idatzi zituen lanetan maisutasuna erakusten du. *Karmengo Amaren Egutegia*, *Euzko-Gogoa*, *Oleriti*, *Agur*, *Dantzari*, *Príncipe de Viana*, *Zer* aldizkarietan idatzi zuen. Hala ere, bere laguntzarik oparoena *Karmel* aldizkariarentzat izan zen.

<sup>38</sup> *Berio-Otxoaren Bizitza*, Bilbao, 1952, 96 orr.; *Karmengo Eskapularioa*, Bilbao, 1952, 201 orr.; *Fatimako Ama Birjina*, Gasteiz, 1955, 260 orr.; *Goi-Bidez*, Bilbao, 1968, 423 - IV orr.; *Kristorem eliza*, Bilbao, 1971, 259 orr.; *Gernika'ko Arbola*, Bilbao, [1983], 36 orr.

#### d. *Karmengo Argia* aldizkariaren inguruan

Aitatu dugun legez, Aita Gabirel eta beste idazle guzti horiek *Karmengo Argia* aldizkaria izan zuten aukerarik ederrena euskaraz idazten jarduteko. Aldizkari horren inguruan batu ziren karmeldar euskaldun gehienak. Egia esan, *Karmengo Argia* aldizkariak arrakasta handia izan zuen Euskal Herri osoan zehar, gerra etorri zenean 5.000 harpidedun zituela. Karmeldarren Ordenako Euskal Probintziak Euskal Herriari eskainitako oparirik ederrenetarikoa dugu. Bertan trebatu ziren, ikusi dugunez, geroago idazle ospetsu izango zirenak.

Bertan parte hartu zutenen artean ezagunenak aipatu berri ditugun idazleak izan baziren ere, bada karmeldarren artean *Karmengo Argian* idatzi zuen besterik ere. Gerrak sortu zuen sakabanatzeak ekarriko zuen beraietariko batzuk euskal mundutik kanpo aritu beharra eta idazle izateko bidean ziren hainbaten bizitzan etena sortzea. Batzuk aipatzekotan, honakook gogoratuko ditugu:

– **Aita Pedro Elorrieta Zenikaonaindia**, Mendatan jaioa, Euskal Herriatik kanpo bizi ondoren, *Mendatako Profeta* liburuaren egilea. Olerkari ere bazen. *Mila Euskal Olerki Eder* liburuan ageri da bere olerki bat.

– **Aita Ambrosio de la Virgen del Carmen** (Juan Abasolo Lekue, 1904-1982), Zornotzako semea; teologo eta idazlea, Vijayapuram-eko apezpikua.

– **Aita Isidoro Magunagoicoechea**, “Arratzu” bere jaioterriaren izena erabiltzen zuena. Ikasketak Erroman egin ostean, bizitzako urte gehienak Portugalen egin zituen.

– **Aita Eustaquio de San Jose** (Ignacio Beracoechea), Ameriketara joan behar izan zuena.

– **Aita Eustakio Larrañaga** (“Peru Azkoiti”), Indian urte batzuk egin eta ikasketak Erroman osatu ostean, bizitza gehiena Amerikako misioetan egin zuena.

Karmeldar idazle multzo hau gogora ekarriz, Aita Gabirel, fisika, kimika eta natur zientzietan bidegile izan baldin bazen ere, ez dela bakarreko landarea esan dezakegu. Ikusi izan dugunez hainbat eta hainbat karmeldar gaztek jardun zuten beraren inguruan.

Gerrateak etendura sortu ez bazuen, zer esanik ez, euskal kulturari eta euskarari ospe handia emango zieten hainbat izango genituzke gaur egun. Hala ere, eragozpenak eragozpen, batzuk aurrera jo zuten gerra osteko ilunaldian euskara sakontzen eta gero berriro *Karmel* aldizkariaren inguruan, aurrekoengandik jasotako lekukoa gazte berrien eskuetara eramaten.

Aita Gabirelek eta garaikideek ereindako haziak, gerrosteko lurpeko usteltzearen ondoren eta orduko tentai mardulen babespean, landare berriak ekarri zituen. Gerra aurrean, idazle euskaltzaleak elkartu eta trebatzeko bide *Karmengo Argia* izan zen bezala, *Karmel* eta *Olerki* izango ditugu berriei idazteko aukera eskainiko dietenak.

Orduan izardi ugariz eta ausartasun handiz ereindako haziak fruiturik ekarri du euskal kulturaren baratzean.

*Julen Urkiza - Patxi Uribarren*

<sup>39</sup> Ik.: Julen URKIZA, *S. Onaindiaren euskal idazlanen bibliografia*, Amorebieta-Etxano, 1989, 58 orr.